

ERANSKINAK	27
I. Eranskina	28
II. Eranskina	31
III. Eranskina	40
IV. Eranskina	42
V. Eranskina	45
VI. Eranskina	46
VII. Eranskina	48
VIII. Eranskin	65
IX. Eranskina	66
X. Eranskina	86
XI. Eranskina	87
XII. Eranskina	88
XIII. Eranskina	95

E R A N S K I N A K

I. Eranskina: Eskolako 3. Mailako tutoreari egindako elkarrizketaren galdererantzunak:

Elkarrizketa 2013ko urriaren 31n egin zen eta erantzunak grabagailu baten bidez jaso ziren.

- Zenbat ikasle daude eta zenbatek egiten dute etxean euskaraz?
- 12 ikasleko taldea da: 9 neska eta 3 mutil. Etxean familiarekin euskaraz aritzen direnak 5 besterik ez dira, erdia baino gutxiago. Nik uste horren ondorioz, ikasgelatik kanpo beti euren artean gaztelaniaz mintzatzen direla. Ikasgela barruan nirekin euskaraz hitz egiten duten arren, binaka edo taldeka lan egin behar dutenean gaztelaniaz aritzen dira. Jolastokian ere gaztelaniaz hitz egiten dute beste ikasturteetakoekin.
- Badago hizkuntzen arloarekin hezkuntza premia berezirik duen ikaslerik?
- Bai. Batetik, dislexia duen mutil bat dago. Ahozko zein idatzizko adierazpenean arazoak ditu. Bestetik, Brasiletik etorritako neska bat ere badago. Euskara eta gaztelaniaz adierazteko arazoak ditu. Etxean portugesez aritzen da gurasoekin. Apurka badoa hobetzen baina oso isila eta lotsatia da. Nirekin gutxitan hitz egiten du eta ez du inoiz zalantzarik galdetzen edo klasean parte hartzen. Azkenik, arazo familiarak direla eta, ikastetxe ezberdinetatik igaro izan den neska dago. Gurasoak atzerritarrak dira. Aurretik B ereduan aritu izan da, eta aipaturiko arazoengatik, hiru hilabete oso bat galdu izan ditu. Hori dela eta euskaraz aritzeko zailtasun ugari ditu.
- Nolako izaera dute orokorrean? Gaztelaniarako joera dutenek lidergo handiagoa dute?
- 8-9 urte izateko oso umeak dira irakaslearen ustez. Erraz despistatu edo eztabaidatzen dute. Ikasgelan hiztunak eta parte-hartzaileak naiz nahiko isilak dauden ikasleak daude. Hala ere, orokorrean iniziatiba gutxi duen taldea da eta duela gutxira arte ez zuten zalantzarik galdetzen. Ez dut uste kasu honetan

liderraren rola hizkuntzaren erabileran eraginik duenik. Nire ustez gaztelaniarako joera Haur Hezkuntzatik dator. Taldea gaztelaniaz aritzera ohitu da betidanik, esan bezala, familien gehiengoa erdalduna delako. Gainera, beste eskola batera joandako neska bat eta errepikatu duten beste bi ahizpa falta dira. Hauek ere gaztelaniaz aritzen diren familietako kideak dira. Beraz, txikitatik 15eko gela izan dira eta 5 ikaslek besterik ez dira etxean euskaraz aritu. Ondorioz, gaztelaniarako joera izan dutenak, gehiengoa izanik, besteen hizkuntza ohiturak aldatu dituzte.

- Nahiko umeak direla esan didazu, hori kontuan izanda, nola egiten dute lan? Zeintzuk dira erabiltzen dituzu taldekatzeak?
- Binaka lan egiten dute beti, eta horretara ohituta daude. Bikoteetan baino talde handiagoetan lan egiterakoan, eztabaidak erraz sortzen dira. 15 egunero lekuak zotz eginez aldatzen ditut; denek denekin lan egiten ikas dezaten. Egia esan, autonomia gutxi dute eta nireganako dependentzia handia dute. Irakaslearen irudiarenganako dependentzia.
- Nolakoak da zure ustez ikasgelako idatzizko adierazpenaren maila? Euskaraz batez ere.
- Idatzizkoan orokorrean ez dago arazo nabarmenik. Alderdi hau asko lantzen dugu eta gainera, aurrera pausuak ebaluatzeko erraza da. Gaztelaniaz idazten ere aurten hasi dira eta ondo moldatzen dira.
- Eta euskarazko ahozko adierazpenarena?
- Astean gutxienez saio bat alderdi hau lantzeari eskaintzen saiatzen naiz. Horrez gain, bestelako tartetan ere ahozkoa lantzeko aprobetxatzen dut. Ingurunearen Ezagueran, esaterako, gaiarekin zerikusia duten materialak ekartzen duten bakoitzean ahozko azalpen txiki bat egiten dute. Gaiaren errepassoa ere, beti ahoz egiten dugu denon artean. Ni, gainera, oso berritsua naiz eta etengabe euskarazko ereduak eta moldeen adibideak ematen dizkiet, behintzat entzumena landu dezaten.
- Ahozko adierazpena lantzeko, zein beste teknika edo metodo erabiltzen dituzu?

- Orain ikusten ari garen perpaus konpletiboak lantzeko, adibidez, “gorraren jokia” egiten dut. Ikasle batek besteari agindu bat belarrira esaten dio eta hirugarren batek, ea zer esan dioten galdetu behar dio. Ondoko egitura erabiliz erantzun behar dute: “Salto egin behar dudala esan du”. Betiko beste formula batzuk ere erabiltzen ditut: inkestak egin beste gela batzuetan, bakoitzak idatzitako ipuinak taldeari zein beste gela batzuetakoei kontatu, abestiak, bertsoak, antzezlan txikiak, entzunaldiak egin eta ahoz komentatu etab. Hala ere, ez legoke gaizki metodologia edo material berriak jasotzea. Argialetxeetatik jasotzen ditugun entzunaldiak oso urriak dira.

- Ahozko adierazpenaren lanketa bigarren maila batean dagoela uste duzu? Zergatik?
Bai. Egia da liburuek gero eta tarte gehiago eskaintzen diotela ahozko adierazpenari, hala ere, sarritan ez dugu trebetasun guztiak sakonki lantzeko denborarik izaten. Gainera, idatzizko emaitzak beti izan dira ebaluatzeko edota aurrerapauso zein zailtasunak detektatzeko errazagoak. Ebaluazio diagnostikoan ere, esaterako, ez da ahozko adierazpena ebaluatzen. Alde batetik, ulerkorra ikusten dut benetan zaila ikusten dudalako ahozko adierazpenean ebaluazio objektiboa egitea. Oso esparru subjektiboa da. Ikasle batek, adibidez, besteak baino hobeto erabil ditzakeelako egiturak eta aditzak, baina beste batek azaldutakoa konplexuagoa izan daiteke eta konplexutasun horretarako nahiz eta akatsak egin, orokorrean ondo egin. Baina beste alde batetik, ezinbestekoa den alderdia dela uste dut eta idatzizkoa bezain garrantzitsua.

II. Eranskina: Ebaluazio Diagnostikoaren emaitzak.

Ikastetxeko (4. mailako ikasleak) eta D1-eko (D ereduko EAE-ko ikasleak) bataz besteko emaitzen grafikoak ikus daitezke. Ezkerretik hasita lehen koloreak “Hasierako maila” adierazten du, bigarrenak “Erdi maila” eta azkenak, “Maila aurreratua”.

Emaitzak ikusi aurretik, argitu nahi da euskarazko hizkuntza-komunikaziorako gaitasunean honako ezaugarri hauek adierazi nahi direla Ebaluazio Diagnostikoan ageri diren maila bakoitzaren sailkapenarekin (Ebaluazio Diagnostikoa, 2009:8):

Hasierako maila: maila honetako ikasleak nolabaiteko zailtasunak ditu euskarazko testuak ulertzeko. Ahozko zein idatzizko testu hurbiletan (elkarrizketak, gutun laburrak) informazio garrantzitsua (datuak batez ere) ateratzeko gai da. Halaber, testu labur eta argietan zentzu orokorra eta ideia nagusiak identifikatzen ditu. Zenbait kasutan, eta irudien laguntzaz, edukia interpretatzen du, inferentzia zuzenak egiten ditu, eta ohiko erabilerako testuetan (ipuinak) testu mota antzematen du. Beste alde batetik, maila honetako ikasleak euskaraz testu osatu gabeak idazten ditu, eta batzuetan ez du betetzen eskatutako komunikazio helburua. Zenbaitetan datuak sartzen ditu, baina testu ez-egituratuetan eta akatsekin.

Erdi maila: hasierako mailan deskribatutakoaz gain, erdi-mailan dagoen ikasleak aise egiten ditu entzumen, irakurmen eta idazmen lanak. Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizteko gai da mota ezberdinetako ahozko zein idatzizko testuetan. Inferentziak egiten ditu eta testuaren edukia bere ideia propioekiko interpretatzen du. Bere irakasmilari dagozkion ohiko hiztegia eta esapideak antzematen ditu eta, horrekin batera, igorlea eta testu-mota identifikatzen ditu. Beste alde batetik, maila honetako ikasleak bere interesen inguruko testu sinpleak (gutunak adibidez) idazten ditu. Testuaren xedea kontuan izaten du, erregistro egokia aukeratzen du, informazioa oinarritzko eran egituratzen du, eta bere irakasmilari dagozkion gramatika, ortografia eta lexiko arau gehienak betetzen ditu.

Maila aurreratua: hasierako eta erdi-mailan deskribatutakoaz gain, maila aurreratuan dagoen ikasleak lan konplexuagoak egiten ditu, eta gai da konplexutasun handiagoko testuak erabiltzeko. Xedea eta eduki zehatzak identifikatzen ditu eremu ezberdinetako testuetan (familia, ikastetxea, komunikabideak). Era berean, inferentzia zuzenak eta zeharkakoak egoki egiten ditu, testuak laburtzen ditu, eta erabilitako hiztegia antzematen du. Testuak idazterakoan, maila honetako ikasleak testuaren xedea

kontuan izaten du, erregistro egokia eta era askotako hizkuntza-baliabideak erabiltzen ditu. Gai da helburua betetzeari begira behar den informazio garrantzitsua hautatzeko eta gramatika, ortografia eta lexiko arauak betetzen ditu.

Horrez gain argitu, idazmen, irakurmen eta entzumen dimentsioen ebaluazio grafikoetan dauden hiru mailek, honako ezaugarri hauek adierazi nahi dituztela (Ebaluazio Diagnostikoa, 2009:10):

	Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
ENTZUMENA	- Testu laburrak entzun ondoren informazio zehatza identifikatu. - Batzuetan testuko ideiak erlazionatu eta edukiari buruzko inferentziak egin. - Batzuetan, oso ohiko testuetan (ipuina) testu mota identifikatu.	- Testuaren zentzu orokorra identifikatu. - Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak antzeman. - Testu ezberdinen edukiari buruzko inferentziak egin. - Batzuetan testu-mota (ipuina, albiste laburra) antzeman.	- Informazio garrantzitsua aurkitu. - Era ezberdinetako Testuak (elkarrizketa, ipuina, albistea) entzun ondoren, informazioa laburtu. - Eremu ezberdinetako ahozko testuetan testu-mota eta hiztegia antzeman.
IRAKURMENA	- Idatzizko testu sinpleetan (elkarrizketa informala, postala) informazio zehatza	- Testu ezberdinetako informazio garrantzitsua aukeratu (oharra, haurrentzako	- Xedea identifikatu. - Testu laburretako ideien arteko erlazioa antzeman.


	<p>identifikatu.</p> <p>- Ohiko testuetan zentzu orokorra identifikatu.</p> <p>- Batzuetan haurrentzako aldizkarietako testuetako informazio-educia laburtu.</p>	<p>aldizkari bateko elkarrizketa).</p> <p>- Igorlea antzeman eta edukiari buruzko inferentziak egin.</p> <p>- Ber irakasmalari dagokion hiztegia ezagutu.</p>	<p>- Inferentzia zuzenak eta zeharkakoak egin.</p> <p>- Biografia-testu labur baten edukia laburtu (haurrentzako aldizkari batekoa).</p>
IDAZMENA	<p>- Proposatutako helburua zailtasunez bete.</p> <p>- Batzuetan gai zerrendak idatzi, baina ideiak garatu gabe.</p> <p>- Edukiak errepikatu, gutunaren egitura errespetatu gabe.</p> <p>- Hiztegi mugatua erabili; esaldiak bukatu gabe eta akatsekin.</p>	<p>- Informazio eta erregistro egokiak aukeratu, bere esperientziaren ingurunekeo testu bat idazteko.</p> <p>- Eskatutako datuetako batzuk bakarrik aipatu, behar bezala garatu gabe.</p> <p>- Batzuetan akatsak egin, baina komunikazioa oztopatu gabe.</p>	<p>- Testu egoki eta zuzenak (gutun informala) idatzi planteatutako xedea betetzeko.</p> <p>- Eskatutako datuak erabili eta garatu.</p> <p>- Ortografia, gramatika eta sintaxia arauak bete.</p> <p>- Hiztegi egokia erabili, hitzak errepikatu gabe.</p>

1. taula: Hizkuntza-komunikazioa euskaraz. Dimentsioetako mailen deskribapena.

Ebaluazio Diagnostikoan ageri diren maila bakoitzak euskarazko hizkuntza-komunikaziorako gaitasunean zein hiru dimentsioetan (entzumena, irakurmena, idazmena) adierazi nahi dutena aztertu ondoren, hona hemen eskolako 4. mailako ikasle ezberdinen emaitzak 3 ikasturte ezberdinetan:

1. 2009. urtea

1.1. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako idatzizko gaitasuna (ezkerretik eskumara: hasierako maila, erdiko maila eta maila aurreratua):



1. Grafikoa: euskarazko hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna. Ikastetxeko eta EAE-ko D ereduko ikasleen emaitzak. 2009.


1.2. Euskarazko 3 dimentsioak (goitik behera: idazmena, entzumena eta irakurmena).



2.Grafikoa: euskarazko hiru dimentsioak (idazmena, entzumena eta irakurmena). Ikastetxeko eta EAE-ko D ereduko ikasleen emaitzak. 2009.


2. 2010. urtea

2.1. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako idatzizko gaitasuna (ezkerretik eskumara: hasierako maila, erdiko maila eta maila aurreratua):



3.Grafikoa: euskarazko hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna. Ikastetxeko eta EAE-ko D ereduko ikasleen emaitzak. 2010.


2.2. Euskarazko 3 dimentsioak (goitik behera: entzumena, irakurmena, idazmena):



4.Grafikoa: euskarazko hiru dimentsioak (idazmena, entzumena eta irakurmena). Ikastetxeko eta EAE-ko D ereduko ikasleen emaitzak. 2010.


3. 2011. urtea

3.1. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako idatzizko gaitasuna (ezkerretik eskumara: hasierako maila, erdiko maila eta maila aurreratua):



5.Grafikoa: euskarazko hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna. Ikastetxeko eta EAE-ko D ereduko ikasleen emaitzak. 2011.

3.2. Euskarazko 3 dimentsioak (goitik behera: entzumena, irakurmena, idazmena):



6.Grafikoa: euskarazko hiru dimentsioak (idazmena, entzumena eta irakurmena). Ikastetxeko eta EAE-ko D ereduko ikasleen emaitzak. 2011.

Hurrengo tauletan ikasturte bakoitzean 4. mailako taldean egondako ikasle kopurua eta etxean erabilitako hizkuntzen datuak ageri dira, baita goiko grafikoen interpretazio laburra ere.

Ebaluazio urtea		2009	2010	2011
Ikasle kopurua		14	18	21
Familiako hizkuntza	Euskara	%30,8	%27,78	%38,1
	Erdara	%69,2	%72,22	%61,9

2.Taula: Hiru urte ezberdinetan Ebaluazio Diagnostikoan parte hartutako ikasle kopurua eta etxeko hizkuntza.

	2009	2010	2011
Ikasgelako batz besteko euskarazko komunikazio gaitasuna	Erdi maila. Erdi mailaren erditik gora,	Erdi maila. Erdi mailaren erditik behera	Erdi maila. Erdi mailaren erditik gora, batzuk

	aurreratutik gertu.	hasierako mailatik gertu.	maila aurreratuan.
EAE-ko D ereduko ikasleen batz besteko euskarazko komunikazio gaitasuna	Erdi maila. Erdi mailaren erditik gora, aurreratutik gertu.	Erdi maila. Erdi mailaren erditik behera hasierako mailatik gertu.	Erdi maila. Erdi mailaren erditik gora, batzuk maila aurreratuan.

3.Taula: euskarazko komunikazio-gaitasuneko grafikoaren interpretazio taula. Urtez urte eskolako ikasleen eta EAE-ko D ereduko ikasleen konparaketa.

Ebaluazio urtea	2009		2010		2011	
Ikasgelako eta EAE-ko D ereduko ikasleen dimentsioetako batz besteko emaitzak	Ikasgela	EAE	Ikasgela	EAE	Ikasgela	EAE
IDAZMENA	Erdi maila. Maila honen barruan denetarik o emaitzak.	Erdi maila. Maila honen barruan denetarik o emaitzak.	Erdi maila. Erdi mailaren erditik gora, aurreratutik gertu.	Erdi maila. Erdi mailaren erditik gora, aurreratutik gertu.	Erdi maila. Erdi mailaren erditik gora, aurreratutik gertu.	Erdi maila. Erdi mailaren erditik gora, aurreratutik gertu.

<p>ENTZUMEN</p> <p>A</p>	<p>Erdi maila.</p> <p>Erdi mailaren erditik gora, aurreratutik gertu.</p>	<p>Erdi maila.</p> <p>Erdi mailaren erditik gora, aurreratutik gertu.</p>	<p>Erdi maila.</p> <p>Erdi mailaren erditik behera, hasieratik gertu.</p>	<p>Erdi maila.</p> <p>Erdi mailaren erditik behera, hasieratik gertu.</p>	<p>Erdia baino gutxiago erdi mailan, gehiengoa maila aurreratuen hasieran.</p>	<p>Erdia baino gutxiago erdi mailan, gehiengoa maila aurreratuen hasieran.</p>
<p>IRAKURME</p> <p>NA</p>	<p>Erdi maila.</p> <p>Erdi mailaren erditik gora, aurreratutik gertu.</p>	<p>Erdi maila.</p> <p>Erdi mailaren erditik gora, aurreratutik gertu.</p>	<p>Erdi maila.</p> <p>Erdialdean.</p>	<p>Erdi maila.</p> <p>Erdialdean.</p>	<p>Erdi maila.</p> <p>Erdi mailaren erditik gora, aurreratutik gertu.</p>	<p>Erdi maila.</p> <p>Erdi mailaren erditik gora, aurreratutik gertu.</p>

4.Taula: hiru dimentsioetako grafikoen interpretazio taula. Urtez urte eskolako ikasleen eta EAE-ko D ereduko ikasleen konparaketa.

III. Eranskina: Ahozko lantzeko historian zeharreko ikuspegi eta metodo ezberdinen laburpen taula.

	IKUSPEGIA / METODOA	AUTOREAK	IDEIA NAGUSIAK
XX. mendearen aurretik	Metodo zuzena edo Naturala	L. Sauveur (1826-1907)	Etengabeko ahozko elkarreraginean oinarritzen da. Ikasleen ahozko adierazpena sustatzeko, irakasleak galderak egiten ditu.
XX. mendea	Metodo Estrukturalistak: Situazionala eta Audiolinguala	Britainia Handiko hizkuntzalariak: Harold Palmer, A. S. Hornlay besteak beste.	Egituren errepikapenetan oinarritzen dira metodo hauek, ikasleari modu naturalean atera arte. Dena ahoz lantzen da eta idatzizko hizkuntza bigarren maila batean gelditzen da.
Ikuspegi eta metodo alternatiboak	Erantzun fisiko Totala, Metodo Isila, Hizkuntzaren Ikaskuntza Komunitarioa, Sugestopedia, Adimen anitzak, Ikuspegi Lexikoa eta Gaitasunetan Oinarritutako Hizkuntzen Irakaskuntza.	Asher, Gattegno, Curran, Lozanov, eta Gardner besteak beste.	Aurreko metodoek gramatikaren irakaspenari emandako garrantzitik alde egin nahi zuten orokorrean; hizkuntzak komunikaziorako bide gisa irakatsiz eta ikasgeletan elkarrizketarako tartea zabalduz.

<p>Gaur egungo ikuspegi komunikatiboak</p>	<p>Hizkuntzaren Irakaskuntza Komunikatiboa, Ikuspegi Naturala, Hizkuntzaren Ikaskuntza Kooperatiboa, Edukietan Oinarritutako Instrukzioa, Atazetan Oinarritutako Hizkuntzaren Irakaskuntza eta post-metodo aroa.</p>	<p>Krashen eta Terrell, Hymes, Helliday, Finocchiaro, John Dewey, Widdowson eta Kelly, Nunan eta Skehan besteak beste.</p>	<p>Hizkuntzaren irakaskuntza komunikatiboak paradigma aldaketa handi baten hastapenak finkatu zituen XX. mendean. Komunikazio afektiboak du garrantzia, eta ikasleen arteko harremanak sortzea; ez bakarrik egiturak ezagutzea. Beraz, ikuspegi honen funtsean, ikasleek hizkuntza ikasiko dute komunikatzeko beharragatik. Gainera, hizkuntzaren erabilera zuzentasunaren ginetik geratzen da. Ikasleek elkarrengandik ikasten dute hizkuntza; interdependentzia positiboa.</p>
---	--	--	--

5.Taula: ahozketasuna lantzeko ikuspegi eta metodoak historian zehar.

IV. Eranskina: Hezkuntza Curriculum Ofizialeko Oinarrizko Gaitasunen definizioak.

Oinarrizko gaitasuna		
1. Ikasten ikasteko gaitasuna	Curriculume ko definizioa	<i>Ikasleak ikasten ikas dezan, norberaren gaitasunen eta jakintzen jabetza, kudeaketa eta kontrola izan behar du, bere burua pertsona trebe eta eraginkortzat hartuz; orobat, ikasleak pentsamendu estrategikoa izan behar du, lankidetzan jarduteko ahalmena eta bere burua ebaluatzekoa; eta lan intelektuala egiteko teknikak eskuratu behar ditu. Hori guztia ikasketa-esperientzia kontziente eta atseginen bidez garatzen da, bai banaka, bai taldean. (Eusko Jaurlaritza, 2010:73)</i>
	Tailerrek egindako ekarpena	Tailer hauen kasuan, etxean euskaraz mintzatzen diren ikasleengandik, hitz egiteko erraztasun handiagoa dutenengandik ikasiko dute besteek (Berdinen arteko Tutoretzaren oinarria hizpide harturik). Hala ere, tailerretan proposaturiko jarduerak garatzerako orduan denek egingo diote elkarri ekarpenen bat; elkarrekin erronkei aurre eginez eraikiko baitute ikaskuntza.
2. Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna	Curriculume ko definizioa	<i>Gaitasuna honen funtsa hizkuntzaren erabilera da, bai ahozkoa zein idatzizkoa, bai errealitatea adierazi, interpretatu eta hura ulertzeko egindakoa, bai jakintza eraikitze eta komunikatzeko egindakoa, bai eta pentsamoldea, emozioak eta jarrerak antolatu eta norberak erregulatzeko egindakoa. (Eusko Jaurlaritza, 2010:75)</i>
	Tailerrek egindako ekarpena	Hauen bidez ahozko hizkuntzaren lanketaren ildo jarraituko da, ahozko adierazpena protagonista izanik. Erronka euskaraz komunikatzea izango da, hizkuntza bera ikasleen arteko harremanen tresna natural eta erabilgarria

		izan dadin.
3. Gizarte eta herritartasunerako gaitasuna	Curriculume ko definizioa	<i>Gaitasun honek aukera emango dio ikasleari zer gizarte-errealitate bizi duen ulertzeko, lankidetzaz-jarduerak egiteko, bizikidetzaz lantzeko, eta herritartasun demokratikoa gizarte plural batean erabiltzeko. Halaber, gizarte hobetzen laguntzeko konpromisoa hartzeko aukera emango dio. Gaitasun honek askotariko jakintzak eta trebetasun konplexuak biltzen ditu, beharrezkoak direnak ikasleak gizartean parte har dezan, erabakiak har ditzan, egoera jakinetan nola jokatu hauta dezan eta egindako hautuen ardura har dezan. (Eusko Jaurlaritza, 2010:79)</i>
	Tailerrek egindako ekarpena	Tailerretan ahozko komunikazioa oinarria den heinean, elkarren arteko interakzioa ezinbestekoa izango da. Horretarako, berebizikoa izango da ikasleek elkarrekiko izan beharreko errespetua, baita tailerretan aurkeztutako jarduerak aurrera eramateko erabaki komunak hartzeko gaitasuna ere.
4. Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna	Curriculume ko definizioa	<i>Gaitasun honek eskatzen du, alde batetik, elkarrekin lotutako zenbait balio eta jarrera pertsonalen kontzientzia izatea eta horiek aplikatzea. Hona balio eta jarrerok: ardura; irmotasuna; nor bere burua ezagutzea eta auto-estimua izatea; sormena; autokritika; kontrol emozionala; hautatzeko, arriskuak kalkulatzeko eta arazoei aurre egiteko ahalmena izatea; eta berehala asebetetzeko premia atzeratzeko, akatsetatik ikasteko eta arriskuak hartzeko ahalmena izatea. (Eusko Jaurlaritza, 2010:83)</i>
	Tailerrek egindako ekarpena	Arestian aipatu bezala, tailerren funtsa elkarlana izango da. Taldean aritzeko gaitasuna. Taldea unitate moduan jardungo da, eta planteaturiko arazo zein errokei modu bateratuan erantzuteko gai izan beharko da. Beraz,

		<p>taldekide bakoitzak bere harri-koskorra ekarri beharko du modu ekintzailean esan bezala, arriskuak hartuz, akatsetatik ikasiz eta nork bere jarreraren jabe izanez.</p>
--	--	--

6.Taula: oinarritzko gaitasunak, curriculum ofizialeko definizio laburtua eta tailerren metodologiak eginiko ekarpena.

V. Eranskina: Hezkuntza Curriculum Ofizialak Lehen Hezkuntzarako zehaztutako helburu orokorrak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Curriculum ofizialak Lehen Hezkuntzako etaparako Euskara eta Literatura arloan definitzen dituen helburu orokorretatik, honako hauek lirateke ahozko adierazpenarekin lotura dutenak (Eusko Jaurlaritza, 2010:195-196):

- *Modu bateko edo besteko ahozko diskurtsoak eta diskurtso idatziak ulertzea eta interpretatzea, ulerpen hori komunikazio eta ikaskuntza-egoera berriei aplikatzeko.*
- *Hizkuntza egokitasunez, koherentziaz eta zuzentasunez erabiltzea ahoz nahiz idatziz, komunikazio-premia guztiak behar bezala betetzeko.*
- *Era egokian elkarrizketan aritzea era askotako egoeratan, errespetuz eta lankidetzaz asmoz, hartara norberaren sentimenduez eta ideiez ohartzeko eta norberaren jokabidea kontrolatzeko, eta jendartean eraginkortasunez komunikatzeko eta jakintza talde-lanean eraikitzeko.*
- *Ikasgelako eta komunitateko hizkuntzen aniztasunari aitorpena eta balioa ematea, aniztasun horrekiko jarrera ona edukitzeko, eta hizkuntza guztiak komunikazio-tresna egokitzat eta kultura-ondaretzat hartzea.*
- *Jarrera ona eta konfiantza edukitzea norberak ikasteko duen ahalmenean, eta horrela komunikatzeko gaitasuna hobetzea.*

VI. Eranskina: Tailerrentzako kronograma.

Txoko bakoitzeko jolasak burutzeko denbora mugatua den arren, ikasleen erritmo ezberdinak kontuan hartu eta errespetatu beharko dira. Denbora barruan txoko bateko jolas guztiak egin ez badituzte, ez dituzte zertan amaitu. Hurrengo saioan beste txoko batera aldatuko dira (talde guztiak txoko guztietatik igaro behar direlako). Ikasleak, hortaz, lekuz mugitzen joango dira errutinarik ez sortzeko asmoz.

Jolas bakoitzarentzako proposatzen den denboraren egituraketa orientagarria besterik ez da izango. Azken batean, ikasleek erabakiko dute jolasez noiz aldatu; eta beti denek ez dute denbora berbera beharko jolas bera amaitzeko.

<i>SAIOA</i>	<i>TXOKOA</i>	<i>TALDEKATZEAK</i>	<i>IRAUPENA</i>
1. saioa	Tailerraren azalpena	Talde handian	15 min
	Denok batera abestia entzun	Talde txikietan	5 min
	Txoko Gorria; Bermeoko portua.	A taldea	55 min
	Txoko Urdina; Zumaiako portua.	B taldea	
	Txoko Berdea; Hendaiako portua.	D taldea	
	Txoko Morea; Biarritzeko portua.	E taldea	
2. saioa	Denok batera abestia entzun	Talde txikietan	5 min
	Txoko Gorria; Bermeoko portua.	B taldea	55 min
	Txoko Urdina; Zumaiako portua.	D taldea	
	Txoko Berdea; Hendaiako portua.	E taldea	
	Txoko Morea; Biarritzeko portua.	A taldea	

	portua.		
3. saioa	Denok batera abestia entzun	Talde txikietan	5 min
	Txoko Gorria; Bermeoko portua.	D taldea	55 min
	Txoko Urdina; Zumaiaiko portua.	E taldea	
	Txoko Berdea; Hendaiaiko portua.	A taldea	
	Txoko Morea; Biarritzeko portua.	B taldea	
4. saioa	Denok batera abestia entzun	Talde txikietan	5 min
	Txoko Gorria; Bermeoko portua.	E taldea	55 min
	Txoko Urdina; Zumaiaiko portua.	A taldea	
	Txoko Berdea; Hendaiaiko portua.	B taldea	
	Txoko Morea; Biarritzeko portua.	D taldea	
5. saioa	Ebaluazio saioa	Banaka eta talde handian denok batera.	45 min

7.taula: Tailerren kronograma. Saio eta taldeen plangintza.

VII. Eranskina: Ikasleentzako gida.



1. Irudia: Udane, Lupita eta Xabier piratak. Laura Picallo-k (2014) eskuz egina.

MINTZA PIRATAK

Lupita, Udane eta Xabier Bray itsasontzian jaio ziren eta txikitatik bertan bizi izan dira. Noizean behin munduan zehar galdutako porturen bat ezagutu izan dute, baita ozeano erdian galdutako uharte txikiak eta misteriotsuak ere. Hala ere, euren bizitza gehiena itsasontzian eman dute gurasoak piratak baitituzte. Ama itsasontziaren kapitaina da: Iris Kapitaina. Itsasontzian gurasoak ez ezik tripulazio handi bat ere bizi da, denak piratak. Lupitak, Udane eta Xabierrek itsasoa maite dute eta eurak ere nagusitan pirata izan nahi dute munduan zehar bidaiatuz, uharteetan altxorak bilatuz... Hala ere, pirata ona izateko asko ikasi beharra dago; baita matematikak ere!

Oraingo honetan Kantauri Itsasoan dabilta. Bray itsasontziko piratek badakite hurbil Europako hizkuntzarik zaharrenetarikoa hitz egiten duten pertsonak bizi direla: euskaldunak. Antzina bale arrantzale apartak omen ziren euskaldunak. Gaur egun baleen arrantza debekaturik dago, itsaso zabalean gutxi batzuk besterik ez baitira geratzen. Hala ere, gure piratak euskal arrantzaleen istorioak entzuteko irrikaz daude

eta Euskal Herriko portu ezberdinetara joan nahi dute euren egurrezko itsasontziarekin.

Lupita, Udane eta Xabier ere toki berriak ezagutzeko pozez txorutzen daude. Eurekin Euskal Herriko portu ezberdinak ezagutzeko prest? Goazen ba!

Talde bakoitza portu ezberdin batetik hasiko da. Adi piraten mapari, hor ikusiko duzu zein den gaurko itsas portua.

BERMEOKO PORTUA

Oraingo honetan Bray itsasontzia Bizkaira heldu da, Bermeoko portura hain zuzen ere. Egunean zehar herria ezagutzen ibili dira Udane, Lupita eta Xabier baina bat batean handik hurbil uharte txiki bat dagoela ikusi dute: Izaro uharte. Txalupa txiki bat hartu eta Izarorantz abiatu dira hiru gazteak. Benetan ausartak!

Hasi aurretik gogoratu gaurko kapitaina edo **bozera mailea** aukeratu behar duzuela. Taldean zalantzarik izanez gero, irakaslearekin kapitainak bakarrik hitz egin ahalko du.

Zuek galdutako uharte bakarti batera joan beharko bazinate, zer eramango zenukete?

UHARTE BAKARTIA

Denon artean uhartera eramateko zerrenda bat adostu behar duzue eta paper batean idatzi. Denon artean hurrengo 25 gauza aukeratu beharko dituzue:

- 5 jolas ezberdin.



2. Irudia: Bermeoko portua. Iturria: Nosolofoto. 2009.

- 5 janari ezberdin.
- 5 arropa ezberdin.
- 5 ipuin edo liburu ezberdin.
- 5 pelikula ezberdin.

Hartu denbora, adostu eta egin zerrenda!

25 gauzen zerrenda egina dago? Primeran! Hala ere, arazo txiki bat dago. Uhartera arte heltzeko txalupan ez dira hainbeste gauza sartzen. Zerrenda guztitik kendu hain beharrezkoak ez diren 10 gauza. Denon artean adostuta noski!

$25 - 10 = 15$ Beraz, orain txalupan eramateko 15 gauza izan beharko dituzue. Orain bai, ez duzue uhartera joateko arazorik izango.

Udane, Lupita eta Xabier, Izaro izeneko uhartera miatzera joan dira. Zuen uharte bakartiak badu izenik? Adostu ezazue denon artean uharterako izen bat eta idatz ezazue uhartearen irudian!

ZENBAT DAKIZKIZUE?

Udane, Lupita eta Xabier Izaro uhartera heldu dira. Bada ez bada, zuek bezala, 15 gauza eraman dituzte txalupan. Hala ere, bertara heltzean naturak eskainitako ehunka gauza dibertigarri daudela konturatu dira. Jolasean nondik hasi ez dakitela, ikusten dituzte gauzak zerrendatzen hasi dira.

Eta zuek, onak zarete zerrendak egiten? Gai ezberdinei buruz, zenbat dakizue? Hona hemen zuen erronka!

Hurrengo gai hauei buruz esan burura datozkizuen ahalik eta izen edo adibide gehien. Kapitainetik hasita, banan-banan hitz bat esango duzue. Adibidez:

Gaia: eskolako materiala.

- Kapitainak: arkatza.
- Hurrengo taldekideak: koadernoak.

- Beste taldekideak: boligrafoa .
- Kapitaina berriro: liburua.
- Eta abar.

Ezingo dira hitzak errepikatu eta norbait ideiarik gabe gelditzen denean, beste gai berri batekin hasiko zarete. Ea nork dituen ideiarik gehien!

GAIK:

- KOLOREAK
- ANIMALIAK
- FRUTAK
- ARROPAK
- HIZKUNTZAK
- ZIKLOKO NESKEN IZENAK
- ZIKLOKO MUTILEN IZENAK
- HERRIEN IZENAK

ISTORIO ASMATZAILEAK

Udane, Lupita eta Xabier Izaro uhartean primeran pasatzen ari dira. Harearekin gazteluak eginez, zuhaitzen adar eroriekin txabola bat eraikiz, frutak batuz... Baina hainbeste jolastuta neka-neka eginda daude eta hondartzan etzan dira hodeietan forma dibertigarriak bilatuz.

Lupita hiruretatik nagusiena da, baita ipuin kontalari aparta ere! Zaldi itxuradun hodei bat ikusi dute eta Lupitak abeslaria izan nahi zuen zaldi ero baten ipuina asmatu du, Udane eta Xabier barrez lehertu dira.

Zuek zer nolako istorio asmatzaileak zarete?

Zuek ere zuen uharteko hondartzan zerura begira etzanda zaudetela imajinatu, eta hodeietan forma arraroak identifikatu dituzuela.

Bakoitzak paper zati batean baten 3 hitz idatzi behar ditu eta eskuman daukan kideari eman. Honek hiru hitz horiek erabiliz istorio labur bat asmatu beharko dut. Gogoratu istorioek hasiera, korapiloa eta amaiera izan behar dutela; eta korapiloan pertsonaiei zerbait gertatu behar zaiela.

Behin bakoitzaren istorioa entzun eta gero, denbora gehiago izanez gero, berriro hasi eta bakoitzak beste hiru hitz berri idatzi ahalko dituzue.

ZUMAIKO PORTUA

Gaurkoan Bray itsasontzia Zumaiako portura iritsi da. Udane, Lupita eta Xabier Zumaiarekin txunditurik geratu dira. Hain da polita! Hala ere, itsasontziko irakasleak herria ezagutu aurretik etxerako lanak egin behar dituztela esan die. Itsasontzitik ikusten dutena deskribatu behar dutela esan die. Zuek nola moldatzen zarete gauzak deskribatzen? Jolasten ausartzen zarete?



3. Irudia: Zumaiako portua. Iturria: Casa Rural País Vasco. 2009.

Hasi aurretik gogoratu gaurko kapitaina edo **bozeramailea** aukeratu behar duzuela. Taldean zalantzarik izanez gero, irakaslearekin kapitainak bakarrik hitz egin ahal izango du.

ZER NAIZ?

“Zer naiz?” jartzen duen kutxatik txartel bana hartu behar duzue, baina ezin duzue txarteleko irudia ikusi! Goma batekin txartela bekokian jarri beharko duzue denok, horrela:



4. Irudia: Zer naiz? jolasa. Iturria: Jackie Gloves. 2009.

Buruan duzen gauza zer den asmatu beharko duzue banan-banan taldekideei galderak eginez. Taldekideek BAI ala EZ erantzungo dute.

Kapitaina hasiko da galdetzen. Erantzuna BAI bada, beste galdera bat egin ahal izango du. Erantzuna EZ bada, hurrengo taldekidearen txanda izango da.

Nahi dituzuen galderak egin ditzakezue, baina taldekideek BAI ala EZ bakarrik erantzun ahal izango dutela gogoratu! Galderak horrelakoak izan daitezke, adibidez:

- Egurrezkoa naiz?
- Jateko balio dut?
- Itsasoan nago?
- Eskolan nago?
- Gorria naiz? (edozein kolorerengatik galdetu dezakezue)
- Nik badut horrelako zerbait?

➤ NAHI BESTE GALDERA!!

Guztiok txartelean duzuen astatzen duzuenan, beste txartel bat hartzeko aukera duzue eta berriro jolastu.

HITZ EZKUTUAK

Udanek, Lupitak eta Xabierrek itsasontziko leiho biribiletik ikusten dutena deskribatzen jarraitzen dute. Hala ere, irakasleak beti hitz berberak ez erabiltzeko esan die. Zuek hitz batzuk esan gabe zerbait deskribatzeko gai izango zinatekete? Ikus dezagun "Hitz ezkutuak" jolasaren bidez!

Zuetariko batek "Hitz ezkutuak" gutun-azaletik txartel bat hartuko du, baina kontuz! Taldekideek ezingo dute zuen txartela ikusi. Txartelean dagoen irudia deskribatu beharko duzue bertan ageri diren hitzak erabili gabe eta objektua bera izendatu gabe, noski. Adibidez:



5. Irudia: deskribatu beharreko irudia, orrazia. Iturria: Colorear Junior.

Objektu hau goizero erabiltzen dugu. Buruko "gauzak" apaintzeko. Dotore egoteko. Denok dugu bat etxean...

Objektua zein den asmatzen duenak, txartel berri bat hartuko du eta deskribapen berri bat egingo du.

HENDAIAKO PORTUA

Gaurko honetan gure hiru piratak Hendaiaiko portura iritsi dira. Iris kapitainak pirata guztientzako janaria aukeratu eta erosteko eskatu die. Benetan lan handia dute aurretik! Baina ez dute Hendaia ezagutzen... supermerkatuak bidea aurkitzen lagunduko al diezue?



6. Irudia: Hendaiaiko portua. Iturria: Panoramio. 2011.

Hasi aurretik gogoratu gaurko kapitaina edo **bozeramailea** aukeratu behar duzuela. Taldean zalantzarik izanez gero, irakaslearekin kapitainak bakarrik hitz egin ahal izango du.


ESADAZU BIDEA

Zuetariko batek begiak estaliko ditu. Ezertxo ere ikusten ez duenean, besteok paper batean 1etik 8rako zenbakiak idatziko dituzue nahi duzuen ordenan. Adibidez horrela:



7. Irudia: nola kokatu zenbakiak, ibilbidearen adibidea.

Ondoren, begiak estalita dituenak zenbakien arteko ibilbidea marraztu beharko du zenbakien ordena jarraituz. Ibilbidea ondo egiteko, eta zenbakiak non dauden esateko, argibideak eman beharko dizkiote. Gora, behera, eskumara, ezkerrera, okertu pixka bat, hortik ez, primeran, ederto! Zalantzarik izanez gero, begiratu hurrengo adibidea:



8. Irudia: zenbakiak nola lotu, ibilbidearen adibidea.

Batek bukatzen duenean besteon txanda izango da. Beste batek estaliko ditu begiak eta zenbakiak beste hurrenkera baten jarriko dituzue. Bidea ondo egitea lortzen baduzue, gure hiru piratak supermerkatu heldu ahal izango dira!

PIRATENTZAKO MENUA

Zuen laguntzari esker Udane, Lupita eta Xabier supermerkatu heldu dira.

Orain itsasontziko pirata guztientzako menua osatu behar dute. Tripulazioan jende asko dira eta supermerkatuan jaki ezberdin ugari daude. Gure hiru lagunek zuen laguntza behar dute berriro ere!

Lagundu piratentzako menua osatzen; lehenengo platera, bigarren platera eta postrea aukeratuz eta zenbat osagai behar diren erabakiz. Taldean menu bakarra adostu beharko duzue. Ideia moduan zuen janari gustukoena zeintzuk diren komentatu dezakezue. Idatz ezazue paper batean. Adibidez horrela:

	Janaria	Osagaiak
1. platera	Entsalada	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Letxuga ➤ Tomatea ➤ Kipula ➤ Olibak ➤ Olioa, ozpina, gatza
2. platera	Solomoa patata frijituekin	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Solomoa ➤ Patatak ➤ Olioa
Postrea	Fruta mazedonia	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Sagarrak ➤ Madariak ➤ Platanoak ➤ Laranjak ➤ Marrubiak

NI MARGOLARI

Zailena eginda dago! Zuei esker gure hiru piratak ez dira Hendaian galdu eta gaurko bazkarirako menua prest dago!

Hala ere, bazkalordura arte oraindik jolasean aritzeko denbora dago. Piraten jolas bat ikasi nahi duzue?

Zuetariko batek “Ni margolari” jartzen duen gutun-azaletik papertxo bat hartuko du eta ez die taldekideei erakutsiko. Ondoren, papertxoak jartzen duena beste paper batean marraztu eta taldekideek zer den asmatu beharko dute. Marrazten dagoenak ezingo du hitz egin.

Lehenengo asmatzen duenak marrazteko txanda lortuko du, eta gutun-azaletik beste papertxo bat hartuko du.

BIARRITZEKO PORTUA

Gaur goizean esnatu direnean, Udane, Lupita eta Xabier euren itsasontzia Biarritzeko portura heltzear zegoela konturatu dira. Hau zirrara! Beste toki berri bat! Jantzi, gosaldu, hortzak garbitu eta Biarritzeko hondartzara joan dira korrika jolastera. Baina hara! Bat batean mezudun botila bat aurkitu dute. Norena izango ote da?



Zuek ere baduzue ezkutuko mezua duen botila. Bertan jartzen duena irakurri nahi?

9. Irudia: Biarritzeko portua. Iturria: Webcampista. 2010.

Hasi aurretik gogoratu gaurko kapitaina edo **bozeramailea** aukeratu behar duzuela. Taldean zalantzarik izanez gero, irakaslearekin kapitainak bakarrik hitz egin ahalko du.

BOTILAKO MEZUA

Eskolatik hurbil pasatzen den errekan agertu zen botilak honek mezu bat du. Ireki botila eta hartu mezua.

Irakurri denon artean bertan dauden egoerak. Zuek zer egingo zenukete hori gertatu ez gero?

Kontatu banan-banan kideei zer egingo zenuketen egoera horietariko bakoitzean. Hasi lehen egoeratik, eta denok hitz egin ondoren joan hurrengora. Denok hitz egiten amaitzean egin salto hurrengo jolasera.

HITZ EROAK

Udane, Lupita eta Xabier buru-belarri aritu dira aurkitutako botilaren mezua irakurtzen. Hala ere, ez dituzte zenbait hitz ulertzen. Hitzen esanahia aurkitzen lagunduko al diezue?

“Hitz eroak” dion gutun-azala har ezazue. Bertan zenbait hitz eta definizio aurkituko dituzue. Saia zaitezte denon artean hitz bakoitza definizio egokiarekin lotzen.

Amaitzen duzuenean begiratu erantzun zuzena gidako azken orrialdean.

PIRATAREN LOROA

Zuei eskerrak gure hiru piratak botilako mezua ulertu ahal izan dute! Altxor baten mapa dela dirudi. Hala ere, Udane, Lupita eta Xabierrek altxorraren bila abiatzea erabakitzen duten unean itsasontziko loroak ihes egin duela konturatzen dira. Bila joan beharko dira... Benetan bihurria zer da ba gure Txomin loroa!

Badakizue loroak soinu imitatzaile bikainak direla, eta Txomin loroa ere aparta da soinuak imitatzen. Zuek nolakoak zarete imitatzen? Baduzue memoria ona? Froga dezagun!

Denon artean esaldi bat osatu beharko duzue. Esaldiak zentzua izan beharko du, ulergarria izan beharko da. Horrela osatuko duzue esaldia, ikusi adibidea:

- Kapitaina hitz bat esanez hasiko da: **Nire**
- Hurrengo taldekideak kapitainaren hitza errepikatu eta esaldia osatzeko beste bat gehituko du: **Nire txakurra**
- Hirugarren taldekideak aurreko hitzak errepikatu eta beste bat gehituko du: **Nire txakurra oso**
- Kapitainaren txanda berriro: **Nire txakurra oso beldurtia**
- Hurrengoaren txanda berriro: **Nire txakurra oso beldurtia da**

Eta horrela esaldia ahalik eta luzeena egin arte jarraituko duzue txandaka. Norbaitek akatsa egitean edo esaldia ahazten badu, berriro hasi beharko duzue esaldi berri bat sortuz. Akatsa egin duena hasiko da esaldi berriarekin.

ABESTIEN LETRAK

1. "Hurbil" (Zea Mays)
2. "Bixotza suten" (Gatibu)
3. "Noraezean" (Hesian)
4. "Ekainak 24" (Vendetta)
5. "Bandera, untzi ta kalabera" (Hemendik at!)

1. "HURBIL" (ZEA MAYS)

Ez dut malkorik nahi nire ni suizida
 Ateratzen denean
 Egindako mila ezkututzen dira
 Haginen artean
 Beste hainbeste ere nire sabelean
 Egin dute gordelekua
 Ta erortzen denean ur gazi tanta bat
 Zu zaitut aurrean
 Zu zaitut hurbil...
 Benetan galdu naiz, aztarnak joan dira
 Ezabatuz bidea

baina lasai nago eskua altxatzean
 zu zaitut aurrean
 zu zaitut hurbil...
 Berriro hemen dira noizbait joan
 zirenak
 Ta ez ditut nirekin nahi
 Kantzaturik nago piztia asetzeaz
 Akatzeko prest naiz
 Egunero noa galtzen piezatxo bat
 Nire bizi puzzlean
 Ta jausten denean ur gazi tanta bat
 Zu zaitut aurrean

Iturria: Zea Mays bandcamp.

2. “BIXOTZA SUTEN” (GATIBU)

Ez deko gu denbora askorik,
norbera izateko be ez dago astirik,
beti presaka, ganora barik,
buelta ta buelta heldu ezinik.

Begixek beti lainoetan,
boltsikoak haizez beteta.
Buruen neurona bakarra,
bat baina nahikoa bakarra,
aurpegixen tximiste gorri bet.

Eskuek hotz, bixotza suten,
suten, suten, bixotza suten.

Momentu bakotzien ta pausu
bakotzien,
nahi dodan moduen bizi naz ni.
Zuretzat galazota dauen guztixe
neuretzako da, neuretzako.

Iturria: musica.com

Zazpi goaz koatrolatasien,
zure bulerrak nire aho parien.
Martxarako kantu aproposa,
non gogoia han zangoa.

Eskuek hotz, bixotza suten,
suten, suten, suten, bixotza suten.

Momentu bakotzien ta pausu
bakotzien,
askatasunien bizi naz ni.
Zuretzat galazota dauen guztixe
neuretzako da, neuretzako.

Momentu bakotzien ta pausu
bakotzien,
nahi dodan moduen bizi naz ni.
Zuretzat galazota dauen guztixe
neuretzako da, neuretzako

3. “NORAEZEAN” (HESIAN)

Iragan hotza, garai arrotza
izara baten azpian.
Izar txikia ahulegia, handia izan
nahiean.

Maitasun eza, bide nekeza
helmugarik ez duena.
Arima hila, hitz baten bila,
ilargiarekin dantzan

Ihes egin nahi nuke (e)ta ez galdetu
zergatik,
noraezean nabil agertu zinenetik

Etorkizuna, gailur urruna
argiak itzali dira.
Sentimenduak gezur antzuak zuri-
beltzean jaiok.

Bakardadea, nire jabea
berriz esnatzen ari da.
Izaten latzak, bidai garratza
malkotan itotzeko zain.

Ihes egin nahi nuke (e)ta ez galdetu
zergatik,
noraezean nabil agertu zinenetik (bis)

Iturria: musica.com

4. "EKAINAK 24" (VENDETTA)

Ekainak 24, gabon. Herrian zer berri?

Neurea malkoz busti ta zeuena egin
Idatzi soilez ez Dut min hau inola
hanpatzerik
Orbela daraman bezala, haizeak
narama ni

Haizeak eman ditu, milaka abesti
Haizeak eman ditu, nahi nuke nik jakin

IDATZI SOILEZ EZTUT MIN HAU INOLA
HANPATZERIK
ORBELA DARAMAN BEZALA, HAIZEAK
NARAMA NI

San Juan suak senti nahirik
Bero haren falta dut nik
San Juan suak senti nahirik
Urrun zaituztedanetik

Eskutitzetan zuek orain berdin sentitzea
Ondo dakizu ama ez dela hain erreza
Ametsak zirriborro baten idaztea zer da
Gero garbira pasatzeko astirik ez bada?

Haizeak eman ditu, milaka abesti
Haizeak eman ditu, nahi nuke nik jakin

AMETSAK ZIRRIBORRO BATEN IDAZTEA
ZER DA
GERO GARBIRA PASATZEKO ASTIRIK EZ
BADA?

San Juan suak senti nahirik
Bero haren falta dut nik
San Juan suak senti nahirik
Urrun zaituztedanetik

Negarraren negarrez ez dut muxu
ematerik

ta ez nuke inolaz orain hau esan
beharrik:

Bide luzea dugun arren, goazen
elkarrekin

Izarrak gurekin baitaude, ametsen
zaindari

BELDURRIK EZ DEN BIHOTZETAN
AITAREN MALKOETAN
MEMORIA GAZTE GARAIETAN
LAGUN MINEN BESARKADETAN
UDAKO GAU LUZETAN
URRUN SENTITZEN DUDAN HERRIKO
KALEETAN

San Juan suak senti nahirik
Bero haren falta dut nik
San Juan suak senti nahirik
Urrun zaituztedanetik

Iturria: musica.com

5. “BANDERA, UNTZI TA KALABERA” (HEMENDIK at!)

Ezpata hartu eta bagoaz
txalupa honekin itsas ondora
Kizki, Mizkin eta ni, Krispin,
hiru pirata maltzur eta ziztrin.

Bandera, untzi eta kalaberaz,
aurrera pirata denak! (BIS)

Hiru piratak hurbiltzen dira
irla sekretu handira,
Beste untzi bat dute ikusi,
kainoiak prestatu Mizkin!!!

Sutautsa zaio dena erori belauntzitik,
ergel hori, txalupa pusketan leherturik.

Hantxe ikusten dugu irla,
desertu bat bezala dago hilda,
itsas lapurren buruzagi,
altxorra zaintzen dago, Bizar-Gorri!!

Bandera, untzi eta kalaberaz,
aurrera pirata denak! (BIS)

Iturria: Youtube.

“KUTXA EROA” JOLASAREN ERANTZUNAK

HITZA	DEFINIZIOA
TRIPULAZIOA	Ontzi nahiz aireontzietan ardura duten pertsona, zerbitzari eta gidariek osatzen duten taldea.
TROPEL	Ordena handirik gabe toki berean elkaturik osatzen duten taldea.
PURRUSTADA	Norbaiti egindako burla edo iraina.
KAMALEOI	Bere kolorea ingurukoaren arabera aldatzen duen narrastia.
EMANALDI	Irrati-telebista bidez nahiz zuzenean egiten den saioa.
BABESLEKU	Norbait nahiz zerbait estaltzeko eta gordetzeko tokia.
AINGURA	Itsasontziak loturik eta ondo finkaturik uzteko erabiltzen den burdinazko tresna astuna.
LORO	Lurralde beroetako hegazti luma ikusgarriduna, hezi eta zenbait soinu ditzakeena.
IKERTZAILE	Zerbait ikertzen, arakatzen duena.

Iturria: Adorez 5, eskola-hiztegia.

VIII. Eranskina: Ikasleentzako auto-ebaluazio galderak.

Irakasleak bertatik fotokopiatu dezake ikasleentzako auto-ebaluazio fitxa.

PIRATEN TAILERRAK – EBALUAZIO FITXA
Izen-abizenak:
Data:
Zer da gehien gustatu zaizuna? (Aukeratu erantzun bat era biribildu)
<ul style="list-style-type: none"> a) Talde txikietan lan egitea. b) Jolasen bidez ikastea. c) Irakaslearen laguntzarik gabe aritzea.
Zer da gutxien gustatu zaizuna? (Aukeratu erantzun bat era biribildu)
<ul style="list-style-type: none"> a) Taldeetan lan egitea. b) Jolasetan hitz egin beharra. c) Jolasen argibideak irakurri behar izana.
Zer ikasi duzu? (Aukeratu erantzun bat era biribildu)
<ul style="list-style-type: none"> a) Taldekideekin batera lan egiten, elkarrekin ondo konpontzen. b) Euskaraz jolasten, gure artean euskara erabiltzen. c) Irakaslearen laguntzarik gabe jolasten.
Taldean arazoren bat izan duzue? (Borobildu erantzun bat)
BAI / EZ
Bai erantzun baduzu, nola konpondu duzue arazoa? Azaldu labur.
Taldean zein hizkuntzatan hitz egin duzue? Zergatik?
Berriro egingo zenuke tailer hau? (Biribildu erantzun bat) BAI / EZ

8.Taula: ikasleentzako auto-ebaluazio fitxa.

IX. Eranskina: Irakaslearentzako Gida



MINTZA PIRATAK

IRAKASLEARENtzako GIDA

AURKIBIDEA

1. Ikaskuntza Tailerrak
 - 1.1. Ezaugarriak eta egitura
 - 1.2. Ekarpinak
2. Mintza Piratak: ahozotasuna lantzeko tailerren esku-hartze proposamena.
 - 2.1. Gaitasunak eta helburuak
 - 2.2. Taldekatzeak: berdinen arteko tutoretza eta txokoak
 - 2.3. Baliabidea: jolasak
 - 2.4. Kronograma
 - 2.5. Egitura
 - 2.6. Irakaslearen zeregina
 - 2.7. Ebaluazioa
3. Hezkuntza premia bereziak

Hurrengo gidan euskarazko ahozko adierazpena lantzeko esku-hartze enpiriko baten proposamena bildurik dago. Eskolako ikasgela zehatz baten ezaugarriak kontuan harturik, eta ikasleen ahozko adierazpena landu eta hobetzeko asmoz, jolasetan oinarritutako ikaskuntza tailerrak diseinatu dira. Modu honetan, euskarazko ahozko komunikazioa modu naturalean lantzeaz gain, ikasleen arteko euskararen erabilera sustatu nahi da.

Jarraian, ikaskuntza tailerren nondik norako nagusiak azaltzen dira, esku-hartze proposamena zertan oinarritzen den kokatzeko. Ondoren, tailerrak martxan jartzeko irakaslearentzako beharrezko informazio guztia dago atalka.

1. Ikaskuntza Tailerrak

Aipatu bezala, ikaskuntza tailerrak aukeratu dira ahozko adierazpena jorrazteko ardatz edo ildo nagusi gisa. A. Careaga, R. Sica, A. Cirillo eta S. Da Luz (2006) autorrek ikaskuntza tailerrak era praktikoan ikasteko modu gisa definitzen dituzte; “Es una forma de enseñar y aprender mediante la realización de algo. Se aprende lo vivencial y no desde la transmisión. Predomina el aprendizaje sobre la enseñanza” (A. Careaga, R. Sica, A. Cirillo eta S. Da Luz-ek, 2006: 5). Gainera, tailerrak diziplinartekotasuna lantzeko aukera ematen dutela azpimarratzen dute.

Ikaskuntza tailerrak arlo ezberdinak lantzeko metodologia baliagarria dira, baita arlo ezberdin horiek elkarrekin lantzeko ere. Ahozko adierazpena edozein edukiren bitartez landu daiteke, hala ere, ikasgelan komunikaziorako beharra eta interakziorako giro egokia sortu behar da:

Los alumnos y alumnas deben aprender a narrar, a describir, a explicar, a justificar y a argumentar (...) debemos crear en el aula contextos en los que, además de tener la necesidad de utilizarlas (asamblea, explosiones, etc.), puedan reflexionar sobre las características que presentan. (Palou, J., 2005:9)

Kasu zehatz honetan ikaskuntza tailerrak euskarazko ahozko adierazpena lantzeko aplikatu nahi dira. M. Filliat eta M. A. Silva autoreek (1997) Bartzelonako Lehen Hezkuntzako zentro batean katalana lantzeko zenbait tailer erabili zituzten; hona hemen ahozkotetasuna ardatz duen tailer baten adibidea: tailer honen oinarria txotxongiloekin egindako antzerkia da, elkarrizketen bitartez jorrazten dena. 2. zikloko

ikasleekin egiteko dago zuzendua eta ikasleen sormen gaitasuna bereziki lantzeko proposa dela diote autoreek. Ikastaldea talde txikiagoetan antolatzen da eta bakoitzak bere obra sortzen du; denen artean ahoz istorioaren nondik norakoak erabakitzen dituzte eta irakasleak emandako fitxa arin bat betetzen dute hurrengo datuak zehaztuz: izenburua, gertakarien tokia, pertsonaiak eta euren arteko harremana, nor antzetzuko duen pertsonaia bakoitza eta istorioaren laburpen xumea. Azkenik, euren kabuz entseatzen dute eta ikaskideen aurrean eskuetan txotxongiloak erabiliz antzetzu. Irakasleak azken antzezlan eta fitxa idatzia ez ezik, prozesu osoan egindako behaketa lanaren bitartez ere ebaluatzen du tailerra.

1.1. Ezaugarriak eta egitura

Arestian aipatutako M. Filliat eta M. A. Silva Bartzelonako Lehen Hezkuntzako irakasleek (1997), tailerren hurrengo ezaugarriak definitzen dituzte: ikasgela txokoetan antolatzen da; txoko bakoitzean material desberdinak modu anitzetan antolatzen dira; espazio eta denbora berean bakarkako zein taldekako ariketa ezberdinak landu daitezke aldi berean; ikasleak autonomiaz aritzen dira, ikasketa euren kabuz eraikiz; irakasleei zein ikaskideei laguntza eskatzeko aukera dago; irakasleak ikasleak behatzeko aukera zabalagoa du; jolasean ikasteko modu paregabea dira.

Tailerren bidez, ikasleek euren kabuz eta euren artean ikasten dute, elkarren arteko komunikazioa ikaskuntza prozesuaren ezinbesteko tresna izanik. Ikasleei modu autonomoan lan egiteko aukera eskaintzean ahozko interakzioa bermatzen da; hori dela eta, tailerrak eskolak duen behar errealari erantzuna emateko proposamen egokia izan daitezkeela uste da.

Bestalde, Gibb-ek (1996) kontuan hartzeko honako alderdi hauek zerrendatu zituen tailerrak diseinatzerako orduan: giro fisiko egokia sortu behar da, taldeak antolatzerakoan tentsio pertsonalak izan ditzaketen konbinazioak saihestu, prozeduren inguruko argibide garbiak eman eta talde barneko arauak ezartzeko erraztasunak eman, talde bakoitzak barneko erabakiak hartzeko askatasuna eman, eta tailerra aurrera eramateko oinarrizko trebetasunen irakaspena.

1.2. Ekarpenak

M. Filliat eta M. A. Silva autoreek (1997) positiboki baloratzen dituzte Bartzelonako Lehen Hezkuntzako zentro batean katalana lantzeko erabilitako tailer ezberdinen esperientziak; euren ustetan egindako ekarpena hurrengo lau puntutan laburbildu daiteke (M. Filliat eta M. A. Silva, 1997:53):

- Bakarkako zein taldeko lanaren uztarketa.
- Lan autonomia, ikaskideen edota irakaslearen laguntzarekin beharrezkoa denean.
- Lan erritmo desberdinen uztarketa.
- Edukiak eta jarrerak aldi berean lantzea.

Hala ere, tailerren esperientzia martxan jarri aurretik, gogoeta sakona egiteko beharra azpimarratzen dute: “Iniciar una experiencia pedagógica en la escuela que suponga un cambio organizativo y metodológico implica una reflexión previa y conjunta.” (M. Filliat eta M. A. Silva, 1997:54)

2. Mintza Piratak: ahozotasuna lantzeko tailerren esku-hartze proposamena

Tailerren arteko lotura gisa piraten gaia aukeratu da. Udane, Lupita eta Xabier piraten ipuinaren bidez aurkeztuko dira tailerrak, eta ikasleek istorioa irakurri ahala, taldean egiteko jolas eta erronka ezberdinekin egingo dute topo. Errealitatea fantasia ukitu batekin nahastea erabaki da ikasleentzako entretenigarriagoa izateko, baita euren arreta erakartzeko ere.

2.1. Gaitasunak eta helburuak

Arestian esan bezala esku-hartze proposamenaren helburu nagusia tailer ezberdinen bidez ikasleen euskarazko ahozotasuna lantzea bada ere, horren harira ikasleen arteko elkarlana, autonomia edota euskararekiko zaletasuna bezalako hainbat alderdi ere landu nahi dira. Azken batean, modu ludiko eta adierazgarrian, ikasleek ikaste-prozesuan zehar lortu behar dituzten hurrengo oinarrizko gaitasunei ekarpena egin nahi da:

<p>Oinarrizko gaitasuna</p>		
<p>1. Ikasten ikasteko gaitasuna</p>	<p>Curriculume ko definizioa</p>	<p><i>Ikasleak ikasten ikas dezan, norberaren gaitasunen eta jakintzen jabetza, kudeaketa eta kontrola izan behar du, bere burua pertsona trebe eta eraginkortzat hartuz; orobat, ikasleak pentsamendu estrategikoa izan behar du, lankidetzan jarduteko ahalmena eta bere burua ebaluatzekoa; eta lan intelektuala egiteko teknikak eskuratu behar ditu. Hori guztia ikasketa-esperientzia kontziente eta atseginen bidez garatzen da, bai banaka, bai taldean. (Eusko Jaurlaritza, 2010:73)</i></p>
	<p>Tailerrek egindako ekarpena</p>	<p>Tailer hauen kasuan, etxean euskaraz mintzatzen diren ikasleengandik, hitz egiteko erraztasun handiagoa dutenengandik ikasiko dute besteek (Berdinen arteko Tutoretzaren oinarria hizpide harturik). Hala ere, tailerretan proposaturiko jarduerak garatzerako orduan denek egingo diote elkarri ekarpenen bat; elkarrekin erronkei aurre eginez eraikiko baitute ikaskuntza.</p>
<p>2. Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna</p>	<p>Curriculume ko definizioa</p>	<p><i>Gaitasuna honen funtsa hizkuntzaren erabilera da, bai ahozkoa zein idatzizkoa, bai errealitatea adierazi, interpretatu eta hura ulertzeko egindakoa, bai jakintza eraikitzeko eta komunikatzeko egindakoa, bai eta pentsamoldea, emozioak eta jarrerak antolatu eta norberak erregulatzeko egindakoa. (Eusko Jaurlaritza, 2010:75)</i></p>
	<p>Tailerrek egindako ekarpena</p>	<p>Hauen bidez ahozko hizkuntzaren lanketaren ildoak jarraituko da, ahozko adierazpena protagonista izanik. Erronka euskaraz komunikatzea izango da, hizkuntza bera ikasleen arteko harremanen tresna natural eta erabilgarria izan dadin.</p>

<p>3. Gizarte eta herritartasunerako gaitasuna</p>	<p>Curriculume ko definizioa</p>	<p><i>Gaitasun honek aukera emango dio ikasleari zer gizarterrealitate bizi duen ulertzeko, lankidetzajarduerak egiteko, bizikidetzalantzeko, eta herritartasun demokratikoa gizarte plural batean erabiltzeko. Halaber, gizarte hobetzen laguntzeko konpromisoa hartzeko aukera emango dio. Gaitasun honek askotariko jakintzak eta trebetasun konplexuak biltzen ditu, beharrezkoak direnak ikasleak gizartean parte har dezan, erabakiak har ditzan, egoera jakinetan nola jokatu hauta dezan eta egindako hautuen ardura har dezan. (Eusko Jaurlaritza, 2010:79)</i></p>
	<p>Tailerrek egindako ekarpena</p>	<p>Tailerretan ahozko komunikazioa oinarria den heinean, elkarren arteko interakzioa ezinbestekoa izango da. Horretarako, berebizikoa izango da ikasleek elkarrekiko izan beharreko errespetua, baita tailerretan aurkeztutako jarduerak aurrera eramateko erabaki komunak hartzeko gaitasuna ere.</p>
<p>4. Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna</p>	<p>Curriculume ko definizioa</p>	<p><i>Gaitasun honek eskatzen du, alde batetik, elkarrekin lotutako zenbait balio eta jarrera pertsonalen kontzientzia izatea eta horiek aplikatzea. Hona balio eta jarrerok: ardura; irmotasuna; nork bere burua ezagutzea eta autoestimua izatea; sormena; autokritika; kontrol emozionala; hautatzeko, arriskuak kalkulatzeko eta arazoei aurre egiteko ahalmena izatea; eta berehala asebetetzeko premia atzeratzeko, akatsetatik ikasteko eta arriskuak hartzeko ahalmena izatea. (Eusko Jaurlaritza, 2010:83)</i></p>
	<p>Tailerrek egindako ekarpena</p>	<p>Arestian aipatu bezala, tailerren funtsa elkarlana izango da. Taldean aritzeko gaitasuna. Taldea unitate moduan jardungo da, eta planteaturiko arazo zein errokei modu bateratuan erantzuteko gai izan beharko da. Beraz,</p>

		taldekide bakoitzak bere harri-koskorra ekarri beharko du modu ekintzailean esan bezala, arriskuak hartuz, akatsetatik ikasiz eta nor bere jarreraren jabe izanez.
--	--	--

Goian zehaztutako oinarrizko gaitasunei ekarpena egiteko, tailerren bidez eskuratu beharreko honako helburu zehatzak definitzen dira:

- Ahozko adierazpena modu naturalean lantzea, jolasen bidez euskaraz hitz eginez, mintzamina hobetzeko. (1., 2. eta 3. gaitasunei ekarpena)
- Irakasleen arteko harremanetan euskararen erabilera sustatzea, hizkuntza erabiltzeko egoera naturala sortuz, hizkuntzarekiko begirunea eta interesa berpizteko. (2. eta 3. gaitasunei ekarpena)
- Irakasleak talde lanean autonomoki jardutea, euren kabuz arazoei aurre eginez, giro euskaldunean elkarri laguntza eskaintzeko eta elkarrengandik ikasteko. (1., 2., 3. eta 4. gaitasunei ekarpena)

Atal honen laburpen gisa, aipatu beharra dago, tailerren bidez ez dela hizkuntzaren zuzentasuna bilatzen. Irakasleak euren artean euskaraz hitz egitearekin nahikoa litzateke; jolasak burutzeko ideiak eta zalantzak euskaraz partekatzea eta adostea. Azken batean herrian eta eskolan euskararen erabilera ez da bereziki handia, egoera hobetzeko lan handia dago egiteko eta tailer hauek ahozko euskara hobetu eta sustatzeko bidearen pausu txiki bat besterik ez lirateke izango.

2.2. Taldekatzeak: berdinen arteko tutoretza eta txokoak

Esku-hartze proposamena diseinatzeko bi metodologiaren ideiak eta ezaugarriak uztartu dira. Batetik, arestian azaldutako ikaskuntza tailerren metodologia, bestetik berriz, berdinen arteko tutoretza. Azken hau, irakasleen taldekatzeak zehazteko metodo lagungarri gisa erabili nahi da.

Metodologia bi hauek aplikatzea baliagarria izan daitekeela uste da, izan ere, berdinen arteko tutoretzen bidez etxean euskaraz egiten duten irakasleek besteei positiboki eragin diezaiekete. Aurretiazko prestakuntzarik gabe, tutore moduan jardun dezakete euskara jatorra eta hurbilaren inputa eskainiz, eta input hori tailerretan antolaturiko jolasen aitzakiarekin modu naturalean sortzea espero da.

Tutoretza mota desberdinen bidezko emaitza positibo ugari lortu dira. Eskozian, esaterako, berdinen arteko tutoretzetan oinarritutako “Read on” programa garatu dute. Modu honetan, irakurtzen ikasten dabilen ikasleek, ikasle nagusiagoekin batera irakurtzen dute eta irakurritakoaren gainean hitz egin. Helburuak, irakurzaletasuna bultzatzea, autoestima eta ziurtasuna garatzea, eta sozializazio gaitasunak jorratzea dira (Blanch eta Duran, 2006).

Hala ere, N. Sepúlveda, I. Barra eta J. Sánchez Milara autoreek (2006) hobetu beharreko edo kontuan hartu beharreko hiru kontu azpimarratzen dituzte: ez da komenigarria tutoretzak saio askotan zehar edo kurtso osoan zehar luzatzea, eraginkorragoak dira noizean behin landuz gero; bikoteen edo taldeen aukeraketa ondo egitea ezinbestekoa da; eta ez zaie bakarrik emaitzei erreparatu behar, prozesu osoa behatu behar dute irakasleek.

Taldeen antolaketa, beraz, irakaslearen esku egongo da eta ezinbestekoa izango da hurrengo bi irizpideak kontuan hartzea: talde bakoitzean etxean euskaraz hitz egiten duen kide bat egotea (edo euskaraz komunikatzeko arazorik ez duen ikaslea) eta kideen arteko aurretiazko harremana ona izatea. Behin taldeak definiturik, bakoitza txoko ezberdin batean arituko da lanean; aldi berean jarduera ezberdinak jorratuz. Tailerrak guztira lau txokotan banatuta egongo dira, gune bakoitzean egin beharreko ekintzak desberdinak izanik.

Ikasgelan, beraz, lau toki desberdin eta elkarrengandik argi bereizirik finkatuko dira jolasak egiteko. Txoko bakoitzak izen bat izango du eta beti tailer bera jorratuko da horietariko bakoitzean. Ikasle talde bakoitzak saio bateko iraupena izango du txoko bakoitzean proposaturiko tailerra egiteko, eta saioek aurrera egin ahala talde bakoitza txokoa aldatuz joango da.

Diseinu hau 12 pertsonako talde batean oinarritzen da, beraz, 3 pertsonako 4 talde osatuko dira, talde bana txoko bakoitzerako. Etorkizunean esku-hartze proposamen hau kopuru ezberdineko beste talde batekin martxan jarri nahi izanez gero, taldekatzerako hemen proposaturiko kopuruak moldatu daitezke¹.

¹ Moldaketa hauek jatorrizko esku-hartze proposamenarekin aurkeztutako materialetan aldaketak egin beharra suposatu dezake. Erabiltzeko material guztiak altxoraren kutxa barruan daude, hala ere, kopia gehiago behar izanez gero, “Material digitala” izeneko DVD-an dago dena; baita ikasle eta irakasleen gidak ere.

2.3. Baliabidea: jolasak

Tailerren ezaugarrietan aipatu bezala, hauei esker ikasleak jolasean dauden bitartean ikasteko aukera izango dute (M. Filliat eta M. A. Silva, 1997), beraz, jolasak eta hauen bidez sortzen den ikaskuntzak berebiziko garrantzia dute esku-hartze proposamenean. Jolasen bidez, gainera, hizkuntza erabiltzeko behar ukaezina sortzen da ikasleen arten: “Los alumnos tienen que interactuar con el problema que se ha propuesto. Se encuentran ante la necesidad de usar la lengua para resolver lo que se plantea como un juego.” (J. Palou, 2005: 8)

Y. Tornero (2009) autoreak honako alderdi positiboak azpimarratzen ditu: gelan ikasleen arteko giro ona sortzen da, harreman interpertsonalak eta taldekoak erraztu egiten dira, jolasek garapen kognitiboa garatzen laguntzen dute, sormena eta ikasketa esanguratsua eragiteko aproposak dira, motibagarriak dira, hizkuntzen erabilera eragiten dute, ikasleen parte hartzea sustatzen dute eta ikasitakoaren inguruan hausnartzeko aukera ematen dute besteak beste. Hala ere, kontuan hartu behar dira jolasen erabilerak izan ditzaketen alderdi negatiboak. Adibidez, komunikazio gaitasunaren erabilera eskatzen duten jolasetan ikasle lotsatiek parte hartzeko arazoak izan ditzakete.

2.4. Kronograma

Esku-hartze proposamena guztira 5 saiotan burutzeko diseinaturik dago. Tailerrak 4 saioetan zehar landuko dira, saio bakoitzaren iraupena 60 minutukoa izanik. Lehen saioan, salbuespen gisa, 60 minutu horiez gain hasieran beste denbora tarte bat beharko da ikasleei metodologia azaltzeko. Azkenik, 5. saioa ebaluaziorako erabiliko da. Esku-hartze proposamena hilabete eta aste betean burutzeko diseinaturik dago, astero saio bakarra eginez.

Txoko bakoitzeko jolasak burutzeko denbora mugatua den arren, ikasleen erritmo ezberdinak kontuan hartu eta errespetatu beharko dira. Denbora barruan txoko bateko jolas guztiak egin ez badituzte, ez dituzte zertan amaitu. Hurrengo saioan beste txoko batera aldatuko dira (talde guztiak txoko guztietatik igaro behar direlako). Ikasleak, hortaz, lekuz mugitzen joango dira errutinarik ez sortzeko asmoz.

SAIOA	TXOKOA	TALDEKATZEAK	IRAUPENA
6. saioa	Tailerraren azalpena	Talde handian	15 min
	Denok batera abestia entzun	Talde txikietan	5 min
	Txoko Gorria; Bermeoko portua.	A taldea	55 min
	Txoko Urdina; Zumaiako portua.	B taldea	
	Txoko Berdea; Hendaiaiko portua.	D taldea	
	Txoko Morea; Biarritzeko portua.	E taldea	
7. saioa	Denok batera abestia entzun	Talde txikietan	5 min
	Txoko Gorria; Bermeoko portua.	B taldea	55 min
	Txoko Urdina; Zumaiako portua.	D taldea	
	Txoko Berdea; Hendaiaiko portua.	E taldea	
	Txoko Morea; Biarritzeko portua.	A taldea	
8. saioa	Denok batera abestia entzun	Talde txikietan	5 min
	Txoko Gorria; Bermeoko portua.	D taldea	55 min
	Txoko Urdina; Zumaiako portua.	E taldea	
	Txoko Berdea; Hendaiaiko portua.	A taldea	
	Txoko Morea; Biarritzeko portua.	B taldea	
	Denok batera abestia entzun	Talde txikietan	5 min

9. saioa	Txoko Gorria; Bermeoko portua.	E taldea	55 min
	Txoko Urdina; Zumaiako portua.	A taldea	
	Txoko Berdea; Hendaiaiko portua.	B taldea	
	Txoko Morea; Biarritzeko portua.	D taldea	
10. saioa	Ebaluazio saioa	Banaka eta talde handian denok batera.	46 min

2.5. Egitura

Piraten gaia izango da tailerren oinarria. Txoko bakoitzean proposaturiko jolasak itsaslapurren munduarekin izango dute lotura, fantasiaren bidez ikasleen arreta eta motibazioa pizteko (Y. Tornero, 2009). Esku-hartze proposamen hau inoiz egin gabekoa dela azpimarratu nahi da. Tailerren diseinu zein antolaketa osoa guztiz berria da, baita ikasleen gidan bertan ageri den hiru pirata protagonisten irudia² ere.

Ikasleak talde txikietan bilduta era autonomoan arituko dira jolasean, talde bakoitzak gune batean tailer ezberdina burutuz. Horretarako, gida bat egongo da txoko bakoitzerako eta ikasleek bertatik irakurriko dituzte jolasen inguruko azalpenak eta arauak. Hala ere, gidan ez da jolasen azalpen hutsa agertuko eta tailerrei lotura sendoagoa emateko asmoz, piraten ipuin edo istorio txiki baten bidez aurkeztuko dira jolasak. Suerta daitezkeen zalantza edo kezka irakaslearekin argitzeko, txoko bakoitzerako taldeko kide bat izango da bozeramailea edo kapitaina, eta berak bakarrik hitz egin ahal izango du irakaslearekin.

Irakasleak tailerrak burutzeko ikasgelan 4 txoko edo gune bereiziko ditu. Txoko bakoitzean jolas ezberdinak egingo dira, beraz, gune bakoitzean ikasleek beharko

² Laura Picallok (2014) eskuz egina da.

du ten materiala ere aurretiaz prestatuko du irakasleak. Jolasak egiteko beharrezko material guztia altxor itxurako kaxan bilduta egongo da³. Beharbada baliabideren bat eskolak jarri beharko du (arkatzak, paper zuriak edo fotokopiak) eta hala den kasuan ondo adierazita egongo da. Hala eta guztiz ere, material gehiena erabiltzeko prest dago: txoko bakoitzerako ikasleentzako gidak, irakaslearentzako esku artean duzun gida, jolasetan erabiltzeko bestelako baliabideak (ikasleen komunikazioa sortzeko aitzakia moduan erabiliko diren objektu edo materialak), eta txoko bakoitzaren eremua adierazteko kartelak. Tailerrak, beraz, abian jartzeko moduan egongo dira. Hala ere, ikasgelan hezkuntza premia bereziak dituen ikaslea egonez gero, jolasak moldatu egin beharko lirateke⁴.

Aurreko guztia kontuan hartuta, hona hemen esku-hartze proposamenari ekiteko irakasleak jarraitu beharreko egitura; A. Careaga, R. Sica, A. Cirillo eta S. Da Luz (2006) autoreek tailerrentzako zehaztutako faseetan oinarrituz:

1. FASEA: Tailerren funtzionamenduaren azalpena:

- Txokoak eta gida aurkeztea (bakoitzak zein leku hartzen duen baina egin beharrekoa azaldu gabe, hori ikasleek irakurriko dute gero euren gidatik).
- Taldeak osatzea⁵ (ikasle bakoitzari norekin lan egingo duen esan).
- Taldean lanean aritzeko elkarbizitza arauak denon artean finkatzea (Y. Tornero, 2009).
- Kapitaina edo bozeramailearen papera azaltzea. Ikasleek txoko bakoitzean momentuan erabakiko dute nor izango den bozeramailea. Taldekide bakoitzak gutxienez behin izan beharko du kapitaina.

2. FASEA: Tailerren burutzea.

Bigarren fase hau 4 saioetan zehar emango da, ikasleak txokoetan lanean diharduten denbora hemen ematen delako. Fase honek barne hartzen dituen saioen hasieran, eta behin ikasleak txokoetan kokaturik daudela, taldeka lanean hasi aurretik girotzeko eta

³ Kutxa eskuz egin dago.

⁴ Ikusi hezkuntza premia berezietan buruzko 3. atala.

⁵ Ikusi 2.2. atalean ikasleak taldekatzeko azalduetako proposamena jarraitzea gomendatzen da.

euskal kulturara hurbiltzeko euskarazko abesti bat entzungo dute⁶. Euskara eskolan erabiltzeko hizkuntza baino gehiago denaren mezua helarazi nahi da; euskaraz bizi daitekeela eta aisialdirako ere euskarazko musika erakargarria badagoela alegia. Tailerren burutzearen eskema hurrengoa litzateke:

- Irakasleak ikasgelan txoko edo gune ezberdinak bereizi eta materiala prestatuko du.
- Behin ikasleak txokoetan kokaturik, jolasean hasi aurretik euskarazko abesti bat entzungo dute (irakasleak nahi duena).
- Ondoren, tailerrekin hasteko unea izango da. Ikasleen gidan datorren arren, hasi aurretik bozeramailea finkatu behar dutela birgogoratuko du irakasleak. Irakaslearekin honek bakarrik hitz egin ahalko du.
- Jarraian, ikasleek txoko bakoitzerako proposatutako jolasak burutuko dituzte euren kabuz. 55 minutuak igarotzean irakasleak batzeko ordua dela esango die.

Bukatzeko, hurrengo hauek dira 4 txokotan banaturik proposatzen diren tailerrak. Jarraian, bakoitzari buruzko zehaztasunak irakurri daitezke, hala ere, jolasen azalpena ikasleen gidan azalduz dago. Kontuan izan, jolas bakoitzarentzako proposatzen den denboraren egituraketa orientagarria besterik ez dela; ikasleek erabakiko dute jolasez noiz aldatu eta beti denek ez dute denbora berbera beharko jolas bera amaitzeko.

1.TXOKOA: Txoko Gorria → BERMEOKO PORTUA
Lekua: ikasgela, gune bereizi bat.
Denboraren egituraketa: <ul style="list-style-type: none"> ➤ Abestia entzun: 5 min ➤ Gidako argibideak irakurri, eguneko bozeramailea zehaztu: 10 min ➤ “Uharte bakartia” jolasa: 20 min ➤ “Zenbat dakizkizue?” jolasa: 15min ➤ “Istorio asmatzaileak” jolasa: 10 min ➤ Erabilitako materiala batu denon artean: 5 min
Baliabide materialak: <ul style="list-style-type: none"> - Piraten kutxatik: uharte bakartiaren irudiaren eredu, ikasleentzako gida eta musika

⁶ Abestien diskoa altxor gainontzeko materialarekin batera altxor kutxaren barruan egongo da. Ikasleek gidaren amaieran dituzte abestien letrak hauek jarraitu nahi izanez gero.

<p>diskoa.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eskolatik: arkatzak, borragoma, folio zuriak eta uharte bakartiaren irudiaren fotokopiak (talde bakoizteko bana)⁷. Horrez gain, hasierako abestia entzuteko disko irakurgailua eta bozgorailuak.
<p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek euskaraz komunikatzea eta jolasetan autonomoki aritzea, euren kabuz jolasak aurrera eramanez, ikasleen arteko harremanetan euskararen erabilera sustatzeko. - Hiztegi aurrezagutzak aktibatzea, hitz zerrendak eginez eta ipuinak asmatuz, elkarrengandik ikasteko.

<p>2.TXOKOA: Txoko Urdina → ZUMAI AKO PORTUA</p>
<p>Lekua: ikasgela, gun e berezi bat.</p>
<p>Denboraren egituraketa:</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Abestia entzun: 5 min ➤ Gidak o argibideak irakurri, eguneko bozeramailea zehaztu: 10 min ➤ “Zer naiz?” jolasa: 30 min ➤ “Hitz ezkutuak” jolasa: 15 min ➤ Erabilitako materiala batu denon artean: 5 min
<p>Baliabide materialak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Piraten kutxatik: ikasleentzako gida, “Zer naiz?” jolaserako kutxa (barruan deskribatu beharreko irudiak eta irudia kopetan jartzeko bururako goma), “Hitz ezkutuak” jolaserako gutun-azala (barruan deskribatu beharreko irudiak) eta musika diskoa. - Eskolatik: hasierako abestia entzuteko disko irakurgailua eta bozgorailuak.
<p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek euskaraz komunikatzea eta jolasetan autonomoki aritzea, euren kabuz jolasak aurrera eramanez, ikasleen arteko harremanetan euskararen erabilera sustatzeko. - Hizkuntzaren bat-batekotasuna lantzea, deskribapenak eginez, ahozko estrategia ezberdinak garatzeko.

<p>3. TXOKOA: Txoko Berdea → HENDAI AKO PORTUA</p>
<p>Lekua: ikasgela, gun e berezi bat.</p>
<p>Denboraren egituraketa:</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Abestia entzun: 5 min ➤ Gidak o argibideak irakurri, eguneko bozeramailea zehaztu: 10 min ➤ “Esadazu bidea” jolasa: 20 min ➤ “Pirarentzako menua” jolasa: 10 minutu ➤ “Ni margolari” jolasa: 15 min ➤ Erabilitako materiala batu denon artean: 5 min
<p>Baliabide materialak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Piraten kutxatik: ikasleentzako gida, begiak estaltzeko zapia, “Ni margolari” gutun-azala

⁷ Bermeeko portuan erabiltzeko uharte bakartiaren irudia, kutxa barruan aurkituko den “Material digitala” izeneko DVD-an dago eskuragai.

<p>(barruan marraztu beharreko objektuen izenen txartelak) eta musika diskoa.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eskolatik: arkatza, borragoma, folio zuriak. Horrez gain, hasierako abestia entzuteko disko irakurgailua eta bozgorailuak.
<p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek euskaraz komunikatzea eta jolasetan autonomoki aritzea, euren kabuz jolasak aurrera eramanez, ikasleen arteko harremanetan euskararen erabilera sustatzeko. - Elkarri argibideak ematea eta komunean gauzak adostea, hizkuntzaren bat-batekotasunaren bidez, euskara modu naturalean erabiltzeko.

<p>4. TXOKOA: Txoko Morea → BIARRITZEKO PORTUA</p>
<p>Lekua: ikasgela, gun e berezi bat.</p>
<p>Denboraren egituraketa:</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Abestia entzun: 5 min ➤ Gidako argibideak irakurri, eguneko bozeramailea zehaztu: 10 min ➤ “Botilako mezua” jolasa: 15 min ➤ “Hitz eroak” jolasa: 15 min ➤ “Pirataren lora”: 15 min ➤ Erabilitako materiala batu denon artean: 5 min
<p>Baliabide materialak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Piraten kutxatik: ikasleentzako gida, “Botilako mezua” botila (barruan egoera hipotetiko en zerrenda), “Hitz eroak” gutun azala (barruan hitzak eta hauen definizio en txartelak) eta musika diskoa. - Eskolatik: hasierako abestia entzuteko disko irakurgailua eta bozgorailuak.
<p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek euskaraz komunikatzea eta jolasetan autonomoki aritzea, euren kabuz jolasak aurrera eramanez, ikasleen arteko harremanetan euskararen erabilera sustatzeko. - Irudimena eta hiztegia lantzea, istorio zein hitz-kateei jarraipena emanez, ahozko hizkuntzaren erabilera ez-kontzientea jorratzeko.

3. FASEA: Ikasleen auto-ebaluazioa.

Bosgarren eta azken saioan, ikasle bakoitzari auto-ebaluaziorako denbora emango zaio. Irakasleak aurretiaz fotokopiatutako auto-ebaluazio fitxako galderak⁸ idatziz erantzun beharko dituzte. Ondoren, idatzitakoa talde handian komunean jarriko dute eta ikasle bakoitzak gutxienez galdera bati erantzun beharko dio. Ebaluazio fitxatik kanpo dauden iritziak eta gogoetak ere ongi etorriak izango dira. Modu honetan ere,

⁸ Ikasleentzako auto-ebaluazio fitxaren eredua, kutxa barruan aurkituko den “Material digitala” izeneko DVD-an dago eskuragai.

irakasleak komunikatzeko gaitasunari erreparatu ahal izango dio. Irakasleak kudeatuko ditu hitz egiteko txandak.

4. FASEA: Irakaslearen balorazio orokorra eta tailerrekin ikasleei helarazi nahi izan dien mezua birgogoratzea.

Azken saioari bukaera emateko, ikasleen auto-ebaluazioaren ondoren, irakasleak landutakoaren laburpen xumea egingo du eta ikasleei bi alderdiren inguruan behatutakoaren berri emango die: euskararen erabilera eta talde lan autonomia. Gainera, tailerren bidez landu nahi izan den ideia birgogoratuko du: euskarazko erabilera eskolan zein eskolatik kanpo aberasgarria eta garrantzitsua da, eta jolasean ere euskaraz aritu daiteke. Horrez gain, saioetan zehar eman diren aurrerapauso eta alderdi positiboak azpimarratuko ditu; eta ikasleen artean gatazka edo arazoren bat egon bada, gertaera hau taldearen esperientzia aberasgarri gisa aipatuko du eta ez alderdi negatibo gisa.

2.6. Irakaslearen zeregina

Irakasleak azken ebaluaziora arte ez du tailerren noranzkoa kudeatuko eta prozesu osoan zehar behaketa lanetan arituko da. Hala ere, saihestezina izango da ikasleek irakaslearen laguntza zuzena eskatzea. Irakasleak ikasleak lagundu behar ditu, baina beti laguntza neurtuz ikasleen espazioan gehiegirik sartu gabe: “El rol del docente gana en matices (...) porque debe profundizar en la adecuación del discurso oral monogestionando y, al mismo tiempo, debe aprender a callar más. Callar para que la palabra circule en el aula en direcciones diversas.” (J. Palou, 2005: 10)

Gainera, jolasak aurrera eramateko espazioa eta materialak kudeatu beharko ditu irakasleak; ikasgelako lan giroa egokia, ikasleentzako erakargarria eta motibagarria izan dadin: “Debe crear espacios (...) debe regular las intervenciones, contrastarlas y focalizar la atención hacia puntos clave.” (J. Palou, 2005: 10)

2.7. Ebaluazioa

Bi ebaluazio egingo dira. Batetik, ikasleek tailerren metodologia eta euren burua ebaluatuko dute⁹. Bestetik, irakasleak prozesu osoa ebaluatu beharko du N. Sepúlveda, I. Barra eta J. Sánchez Milara (2006) autoreek aipatu bezala. Horretarako, saioz saio behaketa zorrotza egin beharko du, txoko bakoitzean gertatzen ari denari erreparatuz.¹⁰ Horrez gain, prozesuaren amaieran, esku-hartze proposamen honetarako ikasleek eskuratu beharreko hiru helburu zehatzen¹¹ lorpenaren inguruan hausnartu beharko du irakasleak; zeregin horretarako hurrengo taulako ebaluazio irizpideen, ebaluazio adierazleen eta ebaluazio tresnen laguntza izango du.

Ebaluazio irizpideak	Ebaluazio adierazleak	Ebaluazio tresnak
Ahozko adierazpenena modu naturalean lantzea, jolasen bidez euskaraz hitz eginez.	Ea jolasean dabiltzanean euskaraz egiten duten.	Behaketa, behaketa fitxa
	Ea zalantzak euskaraz galdetzen dituzten.	Behaketa, behaketa fitxa
	Ea taldeko erabakiak adostu edo eztabaidatzean euskaraz egiten duten.	Behaketa, behaketa fitxa
Ikasleen arteko harremanetan euskararen erabilera sustatzea, hizkuntza erabiltzeko egoera naturala sortuz.	Ea tailerren ondoren euskaraz egiten jarraitzen duten.	Behaketa, behaketa fitxa
	Ea beste taldekoekin euskaraz egiten duten.	Behaketa, behaketa fitxa
	Ea euskaraz mintzatzen ez denari, euskaraz egiteko esaten dioten.	Behaketa, behaketa fitxa
Ikasleak talde lanean autonomoki jardutea,	Ea txostena euren kabuz irakurtzen duten.	Behaketa, behaketa fitxa

⁹ Ikusi 2.5 ataleko 3. Fasea.

¹⁰ Irakaslearen behaketa prozesua errazteko, saio eta talde bakoitzarentzako kontrol orriaren eredia dago kutxa barruan aurkituko den "Material digitala" izeneko DVD-an.

¹¹ 2.1. atalean aipatuak.

euren kabuz arazoei aurre eginez.	Ea jolasen arauak ulertzen dituzten.	Behaketa, behaketa fitxa
	Ea jolas osoak euren kabuz aurrera eramateko gai diren.	Behaketa, behaketa fitxa
	Ea zalantzak elkarri galdetzen dizkieten.	Behaketa, behaketa fitxa
	Ea elkarren ideiak entzun eta errespetatzen dituzten.	Behaketa, behaketa fitxa

Egia da hizkuntzaren erabilera neurtzea zaila izan daitekeela, baina irakaslearen behaketa prozesua errazteko ahalbidetu da ikasleen lan autonomoa. Gainera, ebaluazioa errazteko material ezberdinak sortu dira: ikasleentzako auto-ebaluazio galderen fitxa, irakasleen behaketa jarraitua ahalbidetzeko behaketa kontrol orria, eta hasieran finkatutako helburuak ebaluatzeko amaierako ebaluazio taula. Irakaslea euskararen erabileraren neurketan zentratuko da batik bat, ahozotasunaren kalitatea bigarren maila batean utziz; eta taldean modu autonomoan aritzeko ikasleen gaitasuna ere kontuan hartu beharko du.

3. Hezkuntza premia bereziak

- Aniztasun funtzional fisikoa dute ikasleen kasuan, ez litzateke tailerren inolako moldaketarik egin behar. Ikaslea gurpildun aulkian egonez gero, tailerretan proposatutako jolas guztiak dauden moduan burutuko lituzke. Eskuekin marrazkiak irudikatzeke zailtasunak izanez gero, kideren baten laguntza jasoko du. Hala ere, lehenengo beti ikasleari aukera ematea komeni da.
- Ikasle gorren kasuan, gortasun mailari erreparatu beharko litzaioke. Ikasle gor signantea bada (gutziz gorra), kideek izandako elkarrizketetan eta ahozko trukaketetan parte hartu ahalko du. Horretarako, ikaslea zeinu hizkuntzan mintzatuko litzateke eta irakasle laguntzaile batek ikasleak esandakoa itzuliko luke.

Modu honetan, dituen iritziak eta ideiek besteen ahozko adierazpenean eragingo lukete, elkarren arteko komunikazio naturala emanez.

- Ikusmen urritasuna duten ikasleen kasuan, gidatik jolasen azalpenak irakurtzeko eragozpenak izango lituzkete. Beraz, aukera bi leudeke; batetik, talde bakoitzarentzako gida bakarria egongo denez, ikaskideek jolasen nondik norakoak ozenean irakurriko dituzte. Bestetik, gida braille sistemara moldatu daiteke ikusmen urritasuna duen ikasleak ere jolasen azalpenak bere kabuz irakurri ahal izateko.

Bakarka marraztu beharreko irudiak direnean, kide batek txartelean datorrena esango dio, eta txanda horretan hirugarren kideak bakarrik asmatu beharko luke marraztutako objektua zein den. Marrazkia kolore ezberdinekin hornitu nahi izanez gero, badaude koloreak desberdintzeko lagungarri diren usaindun errotuladoreak. Hala ere, esan bezala materiala brailera moldatu nahi izanez gero CRI-ra jo daiteke (centro de recursos alumnado con discapacidad visual).

4. Erreferentzia bibliografikoak

- Careaga, A., Sica, R., Cirillo, A. eta Da Luz, S. (2006). Aportes para enseñar e implementar un taller. 2014-01-6an hartua, helbide honetatik: http://www.smu.org.uy/dpmc/pracmed/ix_dpmc/fundamentaciontalleres.pdf
- Eusko Jaurlaritzak. (2010b). Haur hezkuntzarako, lehen eta bigarren hezkuntzarako eta batxilergorako dekretu curricularrak Euskal Autonomia Erkidegoan. 2014-04-01ean hartua, helbide honetatik: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/eu_5495/adjuntos/curriculum_vigente/dc_educ_basic_e.pdf
- Filliat, M. eta Silva, M.A. (1997, maiatza). Los talleres de aprendizaje: una propuesta favorecedora de atención a la diversidad. *Aula de innovación educativa*, 61, 51-54.
- Gibb J., (1996). *Manual de dinámica grupal, 17ª edición*. Lumen. Humanitas.
- Palou, J. (2005, abendua). ¿Qué va a salir del saco? La construcción del texto oral en el aula. *Aula de innovación educativa*, 147, 7-10.
- Sepúlvera, N., Barra, I. eta Sánchez Milara, J. (2006, uztaila, abuztua). Una experiencia de tutoría entre iguales que enriquece las opciones metodológicas en un centro. *Aula de innovación educativa*, 153-154, 23-27.
- Tornero, Y. (2009). Las actividades lúdicas en la clase de ELE. Ventajas e inconvenientes de su puesta en práctica. Madrid: Edinumen.
- Uribarren, P., Badiola, R., Baraiazarra, L., Goikoetxea, J. L., Solabarrieta, T. eta Aurrekoetxea, G. (1991). *Adorez 5, eskola-hiztegia*. Bilbo: Elkar.

Tailerrentzako materiala. Ikasle eta irakaslearen gidetan ageri diren irudien jatorrizko web orriak . 2014-05-16an berreskuratua, helbide hauetatik:

- “Zer naiz?” jolasa: <http://jackiegloves.com/2009/07/30/que-tengo-en-el-coco/>
- “Hitz ezkutuak” jolaseko orrazia: <http://www.colorearjunior.com/dibujos-para-colorear-de-moda-y-belleza.html>
- Bermeoko portuko irudia: <http://www.nosolofoto.com/galeria/v/Emilio/Playas+y+Puertos+de+Bizkaia/puerto+depor+tivo+santurtzi.jpg.html>
- Zumaiaiko portuko irudia: <http://www.casaruralpaisvasco.net/pais-vasco/pueblos/zumaia/>
- Hendaiaiko portuko irudia: <http://www.panoramio.com/photo/57679585>
- Biarritzeko portuko irudia: <http://www.webcampista.com/foro/foro-campista/31314-ayuda-me-podriais-aconsejar-pueblecitos-de-encanto-justo-del-otro-lado-de-la-frontera-francesa-al-pasar-irun.html>
- Euskal Herriko mapa mutua: http://es.wikipedia.org/wiki/Euskal_Herria#mediaviewer/Archivo:Euskal_Herria_territorios2.sgv.jpg
- Uharte bakartia irudia: <http://www.imagui.com/a/isla-en-dibujo-idKbGGGoK>
- “Hurbil” abestiaren letra: <http://zeamays.bandcamp.com/track/hurbil-2>
- “Bixotza suten” abestiaren letra: <http://www.musica.com/letras.asp?letra=2113582>
- “Noraezean” abestiaren letra: <http://www.musica.com/letras.asp?letra=2059887>
- “Ekainak 24” abestiaren letra: <http://www.musica.com/letras.asp?letra=2139427>
- “Bandera, untzi ta kalabera” abestiaren letra: <https://www.youtube.com/watch?v=S3ZOKbMBliQ>
- “Zer naiz?” eta “Hitz ezkutuak” jolasentzako irudiak: <http://objetos.dibujosparacolorear.org.es/>
- <http://www.dibujalia.com/>
- <http://www.webparaninos.com/colorear-dibujos-objetosvestir-menu.html>
- <http://www.imagui.com>
- http://www.es.clipproject.info/galeriadeimagenes/objetos_dibujos_para_colorear.html
- <http://imagenesparapintar.net/elementos-y-objetos/>
- <http://www.guiainfantil.com/galerias/dibujos-para-colorear/dibujos-para-colorear-del-colegio/dibujo-para-imprimir-y-colorear-de-un-lapiz/>
- <http://www.pekedibujos.com/varios/zapatos-para-colorear.html>
- http://www.pintodibujos.com/2012_01_01_archive.html
- <http://www.conmishijos.com/ocio-en-casa/dibujos-para-colorear/dibujos-s/dibujos-sacapuntas.html>
- <http://rosafernandezsalamancadibujos.blogspot.com.es/2014/03/muebles-y-objetos-de-la-casa-para.html>
- http://www.plusesmas.com/ocio_en_casa/colorear_ninos/categoria/10/1_56.html
- <http://servicios.educarm.es/admin/webForm.php?ar=316&mode=visualizaAplicacionWeb&aplicacion=ASTRONOMIA&web=32>
- http://spanishkidstuff.com/flashcards/bathroom_objectsSp.html
- <http://dibujos-de-los-usuarios.dibujos.net/elefante-3.html>
- <http://dibujoscolorear.es>

X. Eranskina: Irakaslearen behaketarako kontrol orria.

BEHAKETARAKO KONTROL ORRIA			
Data:			
Saioa:			
Behatutako taldea:			
Taldekideen izenak:			
	Bai	Ez	Batzuetan
1. Euren artean euskaraz hitz egiten dute.			
2. Irakasleari euskaraz hitz egiten diote.			
3. Beste txokoetan daudenekin euskaraz hitz egiten dute.			
4. Beharrezkoa baino laguntza gehiago eskatu dute.			
5. Zalantzak euren kabuz argitu dituzte.			
6. Taldean bizikidetza arazoak eman dira.			
7. Beste taldekoekin bizikidetza arazoak eman dira.			
8. Arazoa ondo kudeatu dute (egon izatekotan).			
9. Jolasen arauak errespetatu dituzte.			
10. Materialak zaindu eta batu dituzte.			
OHARRAK:			

9.Taula: irakaslearentzako behaketarako kontrol fitxa.

XI. Eranskina: Amaierako ebaluaziorako taula.

Ebaluazio irizpideak	Ebaluazio adierazleak	Ebaluazio tresnak
Ahozko adierazpenena modu naturalean lantzea, jolasen bidez euskaraz hitz eginez.	Ea jolasean dabiltzanean euskaraz egiten duten.	Behaketa, behaketa fitxa
	Ea zalantzak euskaraz galdetzen dituzten.	Behaketa, behaketa fitxa
	Ea taldeko erabakiak adostu edo eztabaidatzean euskaraz egiten duten.	Behaketa, behaketa fitxa
Ikasleen arteko harremanetan euskararen erabilera sustatzea, hizkuntza erabiltzeko egoera naturala sortuz.	Ea tailerren ondoren euskaraz egiten jarraitzen duten.	Behaketa, behaketa fitxa
	Ea beste taldekoekin euskaraz egiten duten.	Behaketa, behaketa fitxa
	Ea euskaraz mintzatzen ez denari, euskaraz egiteko esaten dioten.	Behaketa, behaketa fitxa
Ikasleak talde lanean autonomoki jardutea, euren kabuz arazoei aurre eginez.	Ea txostena euren kabuz irakurtzen duten.	Behaketa, behaketa fitxa
	Ea jolasen arauak ulertzen dituzten.	Behaketa, behaketa fitxa
	Ea jolas osoak euren kabuz aurrera eramateko gai diren.	Behaketa, behaketa fitxa
	Ea zalantzak elkarri galdetzen dizkieten.	Behaketa, behaketa fitxa
	Ea elkarren ideiak entzun eta errespetatzen dituzten.	Behaketa, behaketa fitxa

10.taula: amaierako ebaluazioa.

XII. Eranskina: altxorraren barruan joango diren materialak.

1. Txoko bakoitzean jartzeko kartelen ereduak.



10.Irudia: Euskal Herriko mapa mutua. Iturria: wikipedia.



HENDAIAKO PORTUA



BIARRITZEKO PORTUA



2. Bermeoko porturako materiala:

Uharte bakartiaren irudia fotokopiatzeko (talde bakoitzerako bana).










11.Irudia: uharte bakartia. Iturria: imagui.

3. Zumaiako portuko materiala: "Zer naiz?" jolasa.

 <p>PATINAK 11. <i>Irudia: patinak.</i> <i>Iturria: Dibujos Para Colorear.</i></p>	 <p>EURITAKOA 12. <i>Irudia: euritakoa.</i> <i>Iturria: Dibujalia.</i></p>	 <p>OHEA 13. <i>Irudia: ohea.</i> <i>Iturria: Imagui.</i></p>
 <p>BETAURREKOAK 14. <i>Irudia: betaurrekoak.</i> <i>Iturria: Web Para Niños.</i></p>	 <p>ERLOJUA 15. <i>Irudia: erlojua.</i> <i>Iturria: Web Para Niños.</i></p>	 <p>TELEFONO MUGIKORRA 16. <i>Irudia: telefono mugikorra.</i> <i>Iturria: Clip Project.</i></p>
 <p>ARKATZA 17. <i>Irudia: arkatza.</i> <i>Iturria: Guía Infantil.</i></p>	 <p>ARTAZIAK 18. <i>Irudia: artaziak.</i> <i>Iturria: Imágenes Para Pintar.</i></p>	 <p>ERREGELA 19. <i>Irudia: erregela.</i> <i>Iturria: Imagui.</i></p>
 <p>ZAPATAK / ZAPATILAK 20. <i>Irudia: zapatak.</i> <i>Iturria: Peko Dibujos.</i></p>	 <p>ERRATZA / GINARRA 21. <i>Irudia: erratza.</i> <i>Iturria: Pinto Dibujos.</i></p>	 <p>MAHAIA 22. <i>Irudia: mahaia.</i> <i>Iturria: Rosa Fernández, dibujos para colorear.</i></p>

“Hitz ezkutuak” jolasa.

 <p>ILARGIA</p> <p>23. Irudia: <i>ilargia</i>. Iturria: <i>Educarm Astronomía</i>.</p> <p>Erabili ezin dituzun hitz ezkutuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Gaua</i> - <i>Eguzkia</i> 	 <p>AULKIA</p> <p>24. Irudia: <i>aulkia</i>. Iturria: <i>Dibujos Para Colorear</i>.</p> <p>Erabili ezin dituzun hitz ezkutuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Eseri</i> - <i>Egurra</i> 	 <p>GILTZA</p> <p>25. Irudia: <i>giltza</i>. Iturria: <i>Clip Project</i>.</p> <p>Erabili ezin dituzun hitz ezkutuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Sartu</i> - <i>Atea</i>
 <p>GALTZERDIA</p> <p>26. Irudia: <i>galtzerdia</i>. Iturria: <i>Plus es más</i>.</p> <p>Erabili ezin dituzun hitz ezkutuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Oina</i> - <i>Zapata/zapatila</i> 	 <p>ELEFANTEA</p> <p>27. Irudia: <i>elefantea</i>. Iturria: <i>dibujos.net</i></p> <p>Erabili ezin dituzun hitz ezkutuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Tronpa</i> - <i>Grisa</i> 	 <p>GERRIKOA</p> <p>28. Irudia: <i>gerrikoa</i>. Clip Project.</p> <p>Erabili ezin dituzun hitz ezkutuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Gerria</i> - <i>Frakak</i>



ZORROZKAILUA

29. *Irudia: zorrozkailua. Iturria: Con Mis Hijos.*

Erabili ezin dituzun hitz ezkutuak:

- Zorroztu
- Arkatza



ARGAKI KAMERA

30. *Irudia: argazki kamara. Iturria: Imágenes Para Pintar.*

Erabili ezin dituzun hitz ezkutuak:

- Argazkia
- Atera



HORTZ ESKUILA

32. *Irudia: hotz eskuila. Iturria: Rosa Fernández, dibujos para colorear.*

Erabili ezin dituzun hitz ezkutuak:

- Hortzak
- Garbitu



ILE- LEHORGAILUA

33. *Irudia: ile-lehorgailua. Iturria: Spanish Kis Stuff.*

Erabili ezin dituzun hitz ezkutuak:

- Ilea
- Lehortu / sikatu




TXIRULA

34. *Irudia: txirula. Iturria: Dibujos Colorear.*

Erabili ezin dituzun hitz ezkutuak:

- Musika
- Instrumentua



IGLUA

35. *Irudia: iglua. Iturria: Plus es más.*

Erabili ezin dituzun hitz ezkutuak:

- Eskimalak
- Izotza

4. Hendaiaiko porturako materiala:

“Ni margolaria” jolasa.

Pirata altxorra	Ezpata	Loroa	Itsasoa
Itsasontzia	Arraina	Hegazkina	Kotxea
Sagarra	Platanoa	Mahatsak	Erlojua
Ordenagailua	Mendia	Eguzkia	Hondartza
Zaldia	Liburua	Egutegia	Zuhaitza
Katua	Txakurra	Motxila	Artaziak

5. Biarritzeko porturako materiala:

“Botilako mezua” jolasa.

ZER EGINGO ZENUKE...
<ul style="list-style-type: none"> • Klasera heldu eta pijaman zaudela konturatuko bazina?
<ul style="list-style-type: none"> • Gozokiak eroatera joan, dirua galdu duzula konturatu eta ordaindu ezin duzula ikusten baduzu?
<ul style="list-style-type: none"> • Eskolan motxila zabaldu eta katu bat aurkituko bazenu?
<ul style="list-style-type: none"> • Gurasoekin erosketak egitera joan eta supermerkatuko kristalezko pote bat apurtuko bazenu?
<ul style="list-style-type: none"> • Kanean hegoa apurtua duen txori bat aurkituko bazenu?
<ul style="list-style-type: none"> • Trenean zurekin doan ezezagun batek aurpegia txokolatez zikinduta izango balu?
<ul style="list-style-type: none"> • Irakaslerik gabeko eskola eguna egongo balitz?

“Hitz eroak” jolasa.

HITZA	DEFINIZIOA
TRIPULAZIOA	Ontzi nahiz aireontzietan ardura duten pertsona, zerbitzari eta gidariek osatzen duten taldea.
TROPEL	Ordena handirik gabe toki berean elkaturik osatzen duten taldea.
PURRUSTADA	Norbaiti egindako burla edo iraina.
KAMALEOI	Bere kolorea ingurukoaren arabera aldatzen duen narrastia.
EMANALDI	Irrati-telebista bidez nahiz zuzenean egiten den saioa.
BABESLEKU	Norbait nahiz zerbait estaltzeko eta gordetzeko tokia.
AINGURA	Itsasontziak loturik eta ondo finkaturik uzteko erabiltzen den burdinazko tresna astuna.
LORO	Lurralde beroetako hegazti luma ikusgarriduna, hezi eta zenbait soinu ditzakeena.
IKERTZAILE	Zerbait ikertzen, arakatzen duena.

Iturria: Adorez 5 , eskola-hiztegia.

XIII. Eranskina: Hezkuntza premia bereziko ikasleentzako tailerrak moldatzeko irizpideak.

- Aniztasun funtzional fisikoa dute ikasleen kasuan, ez litzateke tailerren inolako moldaketarik egin behar. Ikaslea gurpildun aulkian egonez gero, tailerretan proposatutako jolas guztiak dauden moduan burutuko lituzke. Eskuekin marrazkiak irudikatzen zailtasunak izanez gero, kideren baten laguntza jasoko du. Hala ere, lehenengo beti ikasleari aukera ematea komeni da.
- Ikasle gorren kasuan, gortasun mailari erreparatu beharko litzaioke. Ikasle gor signantea bada (guztiz gorra), kideek izandako elkarrizketetan eta ahozko trukaketetan parte hartu ahalko du. Horretarako, ikaslea zeinu hizkuntzan mintzatuko litzateke eta irakasle laguntzaile batek ikasleak esandakoa itzuliko luke. Modu honetan, dituen iritziak eta ideiek besteen ahozko adierazpenean eragingo lukete, elkarren arteko komunikazio naturala emanez.
- Ikusmen urritasuna duten ikasleen kasuan, gidatik jolasen azalpenak irakurtzeko eragozpenak izango lituzkete. Beraz, aukera bi leudeke; batetik, talde bakoitzarentzako gida bakarra egongo denez, ikaskideek jolasen nondik norakoak ozenean irakurriko dituzte. Bestetik, gida braille sistemara moldatu daiteke ikusmen urritasuna duen ikasleak ere jolasen azalpenak bere kabuz irakurri ahal izateko.

Bakarka marraztu beharreko irudiak direnean, kide batek txartelean datorrena esango dio, eta txanda horretan hirugarren kideak bakarrik asmatu beharko luke marraztutako objektua zein den. Marrazkia kolore ezberdinekin hornitu nahi izanez gero, badaude koloreak desberdintzeko lagungarri diren usaindun errotuladoreak. Hala ere, esan bezala materiala brailera moldatu nahi izanez gero CRI-ra jo daiteke (centro de recursos alumnado con discapacidad visual).